

Arrasate

PRESSU

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2003ko urtarrilaren 17a / 614. zenbakia

Saharako errefuxiatuei laguntzeko kanpaina

Arrasateko Udalak eta gobernuz
kanpoko zenbait erakundek Tyndouf-eko
kanpamentuetan dauden sahararrei
laguntzeko kanpaina abiarazi dute




KIROLA: PILOTA JAIALDIA UARKAPEN/10 • ZAHARRAK BERRI: 36KO GERRAKO KALTE-ORDAINAK /17

ARGAZKIA: SORGINAK EMAKUME TALDEA

OSASUN GIDA/24

1. euskal selekzioaren cd-rom jokoak



902 010 735
Telefona 24 orduz.


Imajina dezakezun guztia!



Egin ezazu zuk zeure hamaikakoa!



Aukera ezazu taktikarik egokiena



Jokatu: Munduko Txapelketa, Lagun arteko partiduak, sarean,...

Grafikorik onenak 3D-n Txilenak, erregateak, jaurtiketak, sarrera ikusgarriak, golen ospakizunak...
Giro-soinu aparta, Ikurrinak harmailetan...
Jokoaren estatistikak
Jokaldi onenen errepikapenak...
Lau futbol zelai aukeran.
Partiduak egunez, gauetz, euriarekin...



euskal selekzioaren bufanda
Izakinak bukatu arte.

Zure etxean, 72 orduan bidaltze gasturik gabe




Jokoa orain erosiz gero, bufanda eta garraioa

DOAN

KALEINKESTA/ Ze pentsetan jatzu gizakixek klonetie?



ENRIQUE ETXEBERRIA
Langillie



MARKEL URRETABIZKAIA
Ikaslie



MARINA MENDIGUREN
Etxekoandrie



IKER SARABIA
Langillie



AMAIA RODRÍGUEZ
Langillie



JOANA AGUADO
Langillie

Txarto, bizitza ez dalako holakue. Pentsetan dot ez dala gauza naturala. Norbera hiltzen danien, ez dau zertan norberaren moduko beste bat egon. Ez nago horren alde.

Ez dakit ba... Pertsona bat osorik klonatzearen kontra nago. Baiñe gauza bat argi dago: klonaziñuekin posible dala medikuntzan aurrerapen haundixek egittie. Neurrixek biher die.

Pentsetan dot ez dala gauza normala, ez dala naturala. Gizakixek klonetien kontra nago, baiñe medikuntzan aurrerapenak egittieko balixo dau. Pertsonetien ez daixela jolastu.

Gauza batzuetarako klonaziñue ondo dago, baiñe beste batzuetarako, barriz, txarto. Nik neuk gizakixekin egindako klonaziñuek onartuko nittuke; baiñe, betibe, mugak ipiñitte.

Pertsona baxotxa diferentie izen biher da, bakarra. Ez dot onarketan klonaziñue, ezta animalixetan be. Badakit alde onak be izango dittuela, baiñe ez naz klonaziñuen aldekie.

Txarto. Ez dakit zertarako egon biher dien bi pertsona bardin-bardiñak. Animalixak klonetie be ez dot uste ondo daguenik. Gauzak dien moduen izen biherko litzakez, naturalak.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK PESA-REN TELEFONOZKO ARRETA ZERBITZUA Irakurle batek jakinarazi digu PESAren telefonozko arreta zerbitzua-ekin oso haserre dagoela. Haren esanetan, zerbitzuak oso ordutegi murrizta dauka: esate baterako, zapatuetan ez dute lanik egiten eguerditik aurrera eta domeketan eta jaiegunetan ez dute zerbitzurik ematen. Are gehiago, gehienetan, telefonoa komunikatzen egoten da.

ETABARRUAN...

ORAIN ETA HEMEN /8

KIROLA /12

KULTURA /14

Fuela batzeko boluntarioak

Prestige ontziak isuritako fuela batzera joateko izena eman daiteke Arrasateko udaletxean.

Kencik liderrari 72-74 irabazi

Arrasateko saskibaloitza taldeak garaipen garrantzitsua eskuratu zuen zapatuan Zorrozan.

Egiperen 25. urteurrena

Egipe elkarte gastronomikoak 25 urte bete ditu, eta elkartearen gaineko liburua kaleratu dute.

ASTEKODATUA

3

GRADU ZERO AZPITIK MARTITZENEAN

Joan den martitzen goizean, hiru gradu zero azpitik izan ziren. Horrek esan gura du martitzena izan dela, orain arte, aurtengo neguan egin duen egun hotzena. Etxean egoteko moduko giroa!

BESTEKEESANA

“

Laugarren diskoa da. Gorriak indarra adierazi gura du. Orain artean, Bad F Linen jorratzen

genituen gaiak inplizituagoak ziren. Ahotsak ez ziren oso ulergarriak izaten; entzuleak hausnarketa egin zezala gura genuen. Laugarrena ezberdina da alde horretatik (...). Irudi agresiboa lortu gura genuen, ez sexuala. Jende askok ez du ulertu (...). Nire curriculumean argi agertzen da Bad F Line taldeko partaide naizela. Taldean irautea berebizikoa da niretzat. Gustuko lan batean aritzen naiz orain, eta hala hobeto (...). Ez dut musika ez den beste ezertarako ia astirik, baina patinetan ibiltzea asko gustatzen zait (...). Musika mota mordo bat entzuten dut; beraz, zergatik ez musika ezberdinak egin?”

RAKEL GURIDI
'EUSKALDUNON EGUNKARIA' /03-01-09

HERRITARRENBERBAK/ Iker Ezpeleta



Urte berria ondo hasi behar?

Urte hasierarekin joerak, jokabideak eta orokorrean gauza asko aldatuko ditugulakoan gaude, inor gutxi ezagutzen dut horrelakorik noizbait esan edo gutxienez pentsatu ez duenik. Neuk ere noski, eta leihatila honetatik hasita, urtea betiko txapa ezkorrekin hasterik ez nuela nahi pentsatu dut. Baina, bai topikazo bat gehienok aurretik antzemandango zenuten bezala, gai potolo eta "garrantzitsu" guztiak okerrera doaz; Nazioarteko egoera negargarria, Euskal gatazkan zer esanik ez, Prestige eta heltzen ez zaizkigun antzeko ugari, AHTren proiektua egiten dabiltzala obren zati bat lizitaziora aterate, Astopistako zubiak ere jausten hasi dira eta!! abestiak zioen moduan "Dena doa behera...". Nola izan eta pentsatu baiezko egoera honetan ezta?

Baina oroitzapen onak gordetzeko joera dugula esaten dutenez eta hauetan arakatzu,

ez da gai potolorik ondo joango, bai ordea maila pertsonalean zein inguruko gertuko gai "txiki" ugari ondo doaz. Betetzen gaituzten kontuak, gure inguru gertukoena hobetzen dituzten kontuak, gure arteko erlazioak landu eta hobetuz...

"AHTrik EZ! esatera gonbidatzen zaituztet otsailaren 1ean Tolosan egingo dugun elkarretaratzean"

Eta nago hor dagoela koska, gai potolo eta "garrantzitsuak" dira okerreko bidea, bere horretan. Gauza on txiki ugariarekin mundu hobea egin dezakegu bai, baina "garrantzitsuak" zenbateraino izorratzen gaituen ahaztu gabe (gutxienez ezeta erabiliz, nahiz eta ikusita egon beharrezkoa eta indartsua baita da ez esatea).

Antiglobalizatzaileek esaten duten moduan: pentsatu orokorrean eragin zeurean. Nik jorratzen dudana lan ildoari jarraiki AHTrik EZ! esatera gonbidatzen zaituztet otsailaren 1ean Tolosan egingo dugun elkarretaratzean. Ez bakarrik ezetz esatera, elkar ezagutzera, elkarlanera, eztabaidatzera...

Arrasate

Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran
ERREDAKZIOA
Ubane Madera
Xabier Urzelai
MAKETAZIOA
Alex Azkarate
ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA
Arantzazu Lagunilla
Izaskun Bolinaga
Natali Martínez
Imanol Elortza
ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gainzarain
Ane Bereziar
Iratxe Bengoa

BANAKETA
Julen Aranguren
LEGE-GORDAILUA
SS-1124/88
ISSN
0214-4654
TIRADA
7.350 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaureritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Aramaioko
Udala

GUARDIAKOFARMAZIAK

EGUBAKOITZA, 17
Amezua. Santa Marina 32 943 79 09 74

ZAPATUA, 18
Zabala. Zarugalde 42. 943 77 16 30

DOMEKA, 19
Ruiz. Maala 31 943 79 14 09

ASTELEHENA, 20
Español. Araba etorb 17 943 79 18 65

MARTITZENA, 21
Azkoaga. Ferrerías 5. 943 79 15 15

EGUAZTENA, 22
Azkoaga. Iturriotz 33. 943 79 79 99

EGUENA, 23
Corcuera. Maisu Aranbarri 1 943 79 22 26

TELEFONO JAKINGARRIAK

ERITXEAK
Arrasateko Eskualde Ospitalea. 943 03 53 00
Iguatorialdea. 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak 943 79 39 00
Emakumeak 943 79 44 11
Buru osasunerako etxea 943 79 90 11

LARRIALDIAK
SOS Deiak 112
Gurutze Gorria. 943 76 55 76
DYA 943 78 71 57

AMBULATORIOAK
Guardiako medikua 943 46 11 11
Astelehenerik egubakoitzera 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan 14:00etatik 08:30era
Asteburuetan eta jaiegunetan. egun osoa

Arrasate
Astelehenerik egubakoitzera 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan 09:00etatik 14:00etara

- Txanda hartzeko: medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50
- Espezialitateak 943 03 53 11
- Ikusatzaila 943 03 52 52
- Kanpoko kontsultak 943 03 53 11

AMBULANTZIAK
Gipuzkoako Ambulanzia 943 45 87 44

ERTZAINZA
Arrasate 943 79 71 99

SUHILTZAILEAK
Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaileburua. 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde Parkea 088

MATXURAK
Urak (Udal Zerbitzua) 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
Gasa. 900 40 05 23
. 943 79 78 44

GARRAIOAK
Taxiak 943 79 12 22
PESA. 902 10 12 10

HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK
Iturbide egoitza 943 79 72 11
Abaroa erretiratuen egoitza 943 79 81 57

MONTEIRON LIBURUTEGIA
Monteiron. 943 77 01 05

MEZAK

San Joan parrokia	San Andres eliza
Zapatua	Zapatua
19:00 (elebiduna)	19:00 (elebiduna)
Domeka	Domeka
09:00 (gaztelaniaz)	10:00 (elebiduna)
11:00 (euskaraz)	11:00 (euskaraz)
12:30 (elebiduna)	12:00 (gaztelaniaz)
13:00 (elebiduna)	13:00 (gaztelaniaz)
San Frantzisko eliza	Santa Teresa eliza
Zapatua	Zapatua
19:00 (elebiduna)	19:00 (elebiduna)
Domeka	Domeka
09:00 (euskaraz)	11:00 San Isidron (euskaraz)
10:00 (gaztelaniaz)	12:00 (gaztelaniaz)
11:00 (euskaraz)	12:00 (gaztelaniaz)
12:30 (gaztelaniaz)	Santa Marinako eliza
19:00 (gaztelaniaz)	Jaiegun bezpera eta zapatua
Uribarri parrokia	19:00 (gaztelaniaz)
Zapatua	Domeka
19:00 (elebiduna)	12:00 (gaztelaniaz)
Domeka	
11:30 (euskaraz)	
12:30 (gaztelaniaz)	

OHARRAK

YOGA IKASTAROAK

Yoga Elkarteak yogarekin lotutako hainbat ikastaro antolatu ditu: hasierako ikastaroak (urtarrilaren 22tik aurrera) eta hobekuntzakoak (urtarrilaren 13tik aurrera), hain zuzen ere. Interesatuok, deitu 943 79 20 85 edo 943 79 66 98 telefonotara edo jo Jose Luis Iñarra pasealekuko 26. zenbakira.

DONOSTIAKO DANBORRADA

Astelehenean, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikasleek San Sebastian eguna ospatuko dute San Viator Txikin. 11:45ean, Donostiako danborradako hainbat martxa joko dituzte.

SAHARAREN ALDE

Udaleko Ongizate Sailak eta hainbat GKEK Saharako errefuxiatuen aldeko kanpaina abian jarri dute. Urtarrilaren 20tik 31ra arte janaria batuko dute, eta kontu bat ere zabaldu dute.

AHT-REN AURKAKO EKITALDIA

Datorren egubakoitzean, urtarrilaren 24an, Debagoieneko AHT Gelditu! Elkarlanak AHTren aurkako ekitaldi kulturala antolatu du. 19:00etan izango da, Herriko Plazan, eta trikitilariak, bertsolariak eta beste hainbat ezusteko egongo dira.

AEDrenAGENDA

ARRASATE LEHIAKETAK

Arrasate Lehiaketetan lanak aurkezteko epea otsailaren 7ra arte dago zabalik. AEDk Pablo Urangan duen egoitzara eramane behar dira lanak.

SENDABELARREN GAINEAN

Sendabelarren gaineko taldea eratu dute. Interesa duen edonork AEDra jo dezala.

URBANOENORDUTEGIA

Gorostizatik Eroskira
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

ORAINDELA 10URTEARRASATEN

Ikastolaren eta Udalaren arteko hitzarmena

Udalak eta San Frantzisko Xabier Ikastolak ez zuten hitzarmenik sinatu. Ikastolaren Ferixalekuko eraikinean lanak egin behar zituzten, eta lanon aurrekontua 225 milioi pezetakoa zen. Lanak Udalak egin beharko zituen, eta ordainean ikastolaren zenbait lokal eskuratuko zituen.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Topekaria"



Burukada, buruko (buruan hartutako kolpea).

ARRASATE IRRATIA FM 107.7



Gurutze Irizar, Sahararen gainean

Aljeriako basamortuan bizi diren saharar errefuxiatuen gainean egingo dugu berba Gurutze Irizarrekin datorren astelehenean. Kontua da errefuxiatuendako janaria batzeko kanpaina hasiko dela herrian astelehenean, eta Gurutzek kanpaina horren gaineko argibide guztiak emango dizkigu. Saharar errefuxiatuendako dirulaguntzak murriztu egin dira, eta orain, goseari aurre egin beharko diote. Gurutze Sahararen egon zen, laguntzen eta bizi izaten.



'Prestige'-ren ondorioen gainean

Ekologistak Martxan taldeko kide da Mikel Olabe, eta haren gana jo dugu Prestige petroliontziazaren hondamendia zer iruditu zaion jakiteko. Talde horretako kideek batzarrak egin dituzte Eusko Jaurlaritzarekin, eta batzar horien berri ere eman digu. Bestalde, Xanti Iparragirrekin izan dugun elkarrizketa berriro eskainiko dizuegu zapatuan eta domekan. Duela 22 urte Iparraldera ihes egin zuen, eta orain, Eskoriatzara itzuli da.

HAUGIROA!

MINIMOA
Martitzena, 14 **-3 °C**

MAXIMOA
Eguaztena, 8 **11 °C**

ASTEKO EURIA (l/m²) **23,6 L**

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 8	11 °C	4 °C	5,7 l/m²
Eguena, 9	5 °C	5 °C	14,8 l/m²
Egubakoitza, 10	4 °C	2 °C	0,5 l/m²
Zapatua, 11	7 °C	0 °C	2,6 l/m²
Domeka, 12	4 °C	1 °C	- l/m²
Astelehena, 13	8 °C	-1 °C	- l/m²
Martitzena, 14	9 °C	-3 °C	- l/m²

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak



ASTEKO PROGRAMAZIOA

ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA
09:00 Albistegia
09:30 Igo autobusera
10:00 Euskadi Irratiko albistegia.
10:06 Igo Autobusera.
11:00 Euskadi Irratiko albistegia.
11:20 Arrasate Irratiko albistegia.
11:30 Eguerdiko hamabiak arte: efermerideak, zozketak, zorian agurrak...
12:00 Euskadi Irratiko albistegia
12:06 Musika berriaren tarteak.
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
14:00 Goizeko saioaren errepikapena.
19:00-21:00-23:00 Albistegi laburra

ASTELEHENA
20:00 MIR: Gaizka Vitoria eta Iban Idigoras.

MARTITZENA
20:00 Txortxorrien: Mikel Aranburu eta Jokin Etxebarria.

EGUBAKOITZA
19:00 Planing Prest: Deiane Arrieta

ZAPATUA
11:00 Asteko elkarrizketak: Xanti Iparragirre, Luis Mari Azkargorta...

DOMEKA
11:00 Asteko elkarrizketak

ASTEABIHITZETAN

Udal Haur Eskolako proiekturako

Eusko Jaurlaritzak 32.400 euro eman dizkio aurten Arrasateko Udalarari 0-3 urte bitarteko Haur Hezkuntza proiekturako. Diru kopuru hori iazkoa baino txikiagoa da; hain zuzen ere, geroago eta herri gehiagok eskatzen dutelako dirulaguntza mota hori eta Eusko Jaurlaritzak ez duelako urteroko kopurua handitu.

Kontuak kontu, 32.400 euro eman dizkiote Arrasateko Udalarari. Arrasateko Udalak, berriz, Umezaintzari bideratu ko dio kopuru hori; izan ere, elkarte horrekin sinatu du Udal Haur Eskolarako hitzarmena.

Jaiotza kopurua handitu egin da

Oro har, igo egin da Euskal Autonomia Erkidegoan jaiotzetasa. Eta gauza bera gertatu da Arrasateko ospitalean ere. Iazko datuei begiratuz gero, %7,9 handitu zen jaiotza kopurua eskualdeko ospitalean. Hain zuzen ere, 572 ume jaio ziren iaz. Horietatik 489 modu naturalean jaio ziren eta gainerakoak, zesarea bidez. Esan beharra dago bigarren bide hori geroago eta ugariagoa dela Arrasaten; 2002an, bikoiztu egin ziren 2001eko datuak.

Bestalde, urrian eta apirilean jaio ziren ume gehien.

Eguaztenean zabaldu zuten

Eibarren eta Sorauluzeren arteko errepidea eguazten arratsaldean ireki zuten, esandako epe muga baino lehenago. Gipuzkoako Foru Aldundiko Errepide Saileko ordezkariak emandako azalpenen arabera, solte zeuden hormigoizko hiru piezak zubiari lotzea izan da helburua. Edozelan ere, orain, lanak gelditu daude, eta hala segituko dute, harik eta gertatutakoaren zergatia argitu arte.

Kontuak kontu, bidea zabalik dago, eta Arrasatetik Eibarrera doazenek ez dute Elgetatik joan beharrik.



Atxiloketen kontrako manifestazioa

Joan den zapatu iluntzean, manifestazioa izan zen, Daxen izandako atxiloketengatik protesta egiteko. Besteak beste, Kristina Goirizelaia arrasatearra atxilotu zuten beste bi lagunekin batera. Espainiako Ministerioak ETako Bizkaia Komandoko kide izatea leporatzen dio arrasatearrari.



USTEAKUSTE/ Iker Barandiaran

Kultur ekimenak bultzatu

Aste honetan, Udaleko Hirigintza Sailak, beste gai batzuen artean, honako gaia landu du: herriko zenbait tabernak musika eta antzerki ikusizunak egiten dihardute, beharrezkoak diren baimeak eduki barik. Eta ikusizun horiek saihesteko, Udalak gailuak jarri gura ditu.

Legeak bete behar badi-

tuzte, Udalak jakingo du zeintzuk eta zelan bete; hor ez gara sartuko. Dena dela, Arrasate hain herri handia izanik -unibertsitateak ere herrira ikasle mordo bat ekartzen ditu-, aspaldian, eta batez ere gaztetxea itxi zenetik, batzuek ikusizun gehiagoren hutsunea sumatu dugu. Eskasak dira, gainera, euren kasa ekitaldiak antolatzeko dituzten elkarteak.

Egia da Udaleko Kultura Sailak Amaia Udal Antzokian ere ekitaldiak antolatzeko dituela -gero eta gehiago, gainera-, baina Arrasateko beste biztanle kopuru eta horren jende mugimendu handia daukan herri baten zuzak ez da nahikoa.

Ekimen gehiagoren premia dago, eta, agian, ekitaldiak antolatzen dituztenei oztopoak jarri beharrezkoak dira, zelanbaiteko erraztasunak ematea ez legoke gaizki. Ekimenak egon daitezela!

ASTEKOIRUDIA



AITOR URIZAR

IZOTZA HERRIAREN JAUN ETA JABE IZAN DA ORAINGO ASTEAN, GOIZETAN

Aurreko astean elurraren gaineko izua piztu zen arren, ibarreko herrietan ez zuen ia elurrik egin; are gutxiago hemen, Arrasaten. Hala ere, negua gure artean dago, edo gu neguan murgilduta gaude, eta joan den aspaldian, oso egun hotzak izan ditugu. Eguaztenean eta eguenean, eguzkia indar handia-

goarekin irten zen arren, hotz handia egin zuen. Are gehiago, hainbat goizetan zero graduko eta zero azpiko hotz-beroak izan ditugu, eta, horren ondorioz, izotza gure artean izan da. Errepidean eta kale bazterretan kontu handiagoa eduki behar izan dugu. Izan ere, negua horrelakoa da! /I.B.



EGIN DEZAGUN
BAKOTZAK GURE
ANALEGINIXOA



Zahar Berri
Pablo Uranga 4, behea
Telf.: 943 711 721
943 771 228
zaharberri@aedeikarte.com

ELKARRIZKETA

IÑIGO ZUBIZARRETA/MUSIKARIA

“Orain, gitarra jotzen gogor ibili beharra daukat; gitarra da nire espezialitatea”

ARRASATE PRESS

Iñigo Zubizarreta arrasatearra Bostonen bizi da orain dela hiru urte. Gitarra ikasketak egitera jo zuen Bostonera, eta han jarraitzen du. Uda partean eta Gabonetan Arrasatera etortzen da Iñigo, familia-koak eta lagunak bisitatzen.

Zer dela eta joan zinen Bostonera?

Bostonen gitarra ikasteko oso eskola ona dago. Lagun batek berba egin zidan eskola horren gainean, eta, hainbat aukera azertu ondoren, eskola hura egokiena iruditu zitzaidan.

Hala ere, aurretik Arrasaten eta Zaragozan bizi izan zinean ere ibili zinen musika ikasten, ezta?

Bai. Zaragozan Albaitaritzeta eta Musika ikasketak uztartu nituen. Lehenago, Arrasaten, sei urterekin, solfeoa ikasten hasi nintzen; eta gero, gitarra klasikoak. Eta Zaragozara jo nuenean, gitarra klasikoak eta musika modernoak ikasi nituen eta jazzean apur bat murgiltzen hasi nintzen. Bostongoa azkeneko etapa izango dela uste dut.

Edozelan ere, musikan jarraitu gura zenuke?

Bai. Behin Bostonera ikastera joanda, argi daukat musikaz bizi gura dudala, eta horretan ahaleginduko naiz.

Zeinek bizi zara Bostonen, atzerritarrekin?

Hainbat lagunekin bizi izan naiz: hasieran, errumaniar eta hungariar banarekin; gero, amerikar batzuekin; orain, Burgosko



AITOR URIZAR

mutil batekin eta sevillar batekin bizi naiz. Bostongo auzo pobre baten bizi gara, etorkinen artean. Auzo gatazkatsua da, eta, batzuetan, tiroketak izaten dira, baina guri ez zaigu inoiz ezer gertatu.

Zelakoa da zure ohiko egun bat Bostonen?

Gaur egun, oso eskola gutxi daukat, ikasketak ia bukatu ditudalako. Nire kabuz ikasten eta lanean pasatzen dut eguna. Orain arte azterketa mordoa egin ditut: teorikoak, harmonia, moldaketak, orkestra zuzendaritza... Orain, batez ere, gitarra jotzen dut; nire espezialitatea da.

Hiru bat taldetan-edo parte hartzen duzu...

Bai. Bostonen jazz musikari batzuekin *jazz-fusion* estiloko talde baten jotzen dut; beste rock talde baten ere jotzen dut; eta, bestetik, lagun batzuk bertasioak egiteko elkartzen gara. Azkeneko talde hori ezkontzetarako bideratuta dago, diru apur bat ateratzeko. Nik, batez ere, klasikoak eta rocka jo izan dut, baina gaur egun, klasikoak utzita daukat, eta rocka eta jazzak jotzen dut. Bestalde, bi eskolatan gitarra irakasle ere banabil.

Zein asmo daukazu etorkizunerako?

Zuzenean sarriago jo gurako nuke, eta horretarako ahaleginak egingo ditut. Ganorazko lan baten bila nabil, eta baliteke laster lanen bat lortzea. Ikasketak bukatzean –aurten, maiatzean– Bostonen lan hobea aurkitzen badut, beste urte batez Bostonen geratuko naiz. Bestela, Euskal Herrira edo Espainiara joko dut, eta ea hor zer aurkitzen dudana!

“Bostonera ikastera joan ondoren, argi daukat musikaz bizi gura dudala, eta ahaleginduko naiz”

“Bostongo auzo pobre baten bizi gara; gatazkatsua da, baina ez dugu arazorik izan”

“Gaur egun, gitarra klasikoak utzita daukat, eta, batez ere, rocka eta jazzak jotzen dut”



URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak

- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE

Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxe: 943 77 14 76

GIZARTEA/ Gabonetan ipinitako jaiotzaren gaineko balorazioa

Jaiotzarako laguntza falta sumatu dute antolatzaileek

UBANE MADERA

Urtarrilaren 6ra arte jaiotza egon zen Laubideko berdegune baten. San Andres parrokiako batzordeak ipini zuen jaiotza. Bigarren urtez ipini dute jaiotza, eta iaz arazoak izan zituztela-eta, aurten zelan ibili diren galdetu diegu.

Oro har, iaz baino dezente hobeto irten da aurtengo jaiotza. Hala adierazi digute San Andres parrokiako batzordeko ordezkariak. Hasteko, lekua bera -Laubide plaza- askoz hobea dela esan digute: "Santa Barbara parkea politagoa da, baina aurtengo lekuan jende gehiagok ikusi ahal izan du jaiotza; gainera, askoz hobeto zaindu ahal izan dugu, bai guk, baita udaltzainek ere". Kontatu digute, adibidez, Santamas egunean jaiotzaren inguruan ezin zela ibili ere egin, jaiotza ikusten zegoen jendetza zela-eta. Hortaz, alde horretatik balorazio positiboa egin du parrokiako batzordeak.

LAN HANDIA

Edozelan ere, horrekin batera, esan beharra dago lan handia hartu dutela San Andreskoek ekimen horretan. Iazko elementu batzuk erabili ahal izan dituzte, baina beste asko ez, iaz, ezezagunek apurtu egin zituztelako. Horren ondorioz, jaiotzarako gauza asko berriro egin behar izan dituzte.

Hilabete inguru lehenago hasi ziren guztia prestatzen. Dozena bat lagun ibili da batzarrak egiten, gauzak erosten, jantziak josten... Oro har, antolatzen.

Hain zuzen ere, bereziki, hori igarri dute faltan: alegia, jendearen kolaborazioa; bai ekonomikoa, baita fisikoa ere.

Laguntza ekonomikoari dagokionez, eta erakunde, enpresa,



ARTXIBOA

70 figura inguru izan ditu Laubideko jaiotzak.

denda txiki zein partikular batzuk oso eskuzabak izan badira ere, beste zenbaitek euren laguntza eskaerari erantzun ere ez diete egin esan digute batzordeko kideek.

Horrela, jaiotza 3.600 euro baino gehiago kostatu da aurten, eta parrokiako batzordeak 1.200 euro batu ditu. Hortaz, 2.400 euroko defizita dute oraingoz. Edozelan ere, oraindik Udalari eskatutako dirulaguntzaren gaineko erantzuna falta zaie.

Laguntza fisikoari dagokionez, berriz, oro har, jaiotza egiteko laguntza falta handia igarri du taldeak: muntatzeko, desmuntatzeko, konponketak egiteko...

AURTEN ERE, APURKETAK

Horrez gain, iaz baino gutxiago izan badira ere, aurten ere apurketak egin dituzte jaiotzan. Iteordeak, bizarra, jantziren bat... Horrekin batera, egun batetik bestera jaiotzako zenbait figura bota-

ta aurkitu dituzte eta ia egunero-egunero batzordeko kideak guztia bere lekuan egoteko lanean ibili behar izan dira. Animaliatxo txikiak asko ere falta izan zaizkie: "Zaldiak egunero konpondu behar izan ditugu, Jesus umetxoa hiru bider lapurtu digute eta Olentzoreri denetik egin diote".

PARROKIAK ELKARTZEKO ASMOA

Edozelan ere, eta nahiz eta hori guztia horrela izan, datorren urteari begira ere jaiotza ipintzeko asmoa dutela adierazi digute batzordeko kideek; hori bai, "gainerako parrokiekin elkartu gura dugu, batez ere, lana batera egiteko. Horrela, "erre" barik egingo genuke lana; bestela, jendea nekatu egingo da-eta".

Eta, jakina, oraindik ere gura duenak eman dezake jaiotzarekin sortutako defizita ordaintzen laguntzeko dirua. Kutxan eta Euskadiko Kutxan kontu-korronteak daude zabalik horretarako.

Saharako errefuxiatuei laguntza emateko kanpaina

UBANE MADERA

Fronte Polisarioak egindako eskaerarekin bat eginez, Saharako errefuxiatuei laguntza emateko kanpaina abian ipiniko du Udalak datorren astean. Besteak beste, errefuxiatuendako janaria batuko dute.

Aljeriako kanpamentuetan errefuxiatuta dauden sahararendako izango da Arrasatek bideratuko duten laguntza.

Kanpaina horren barruan, errefuxiatu horien egoera salatzeko mozioa aurkeztuko dute udalbatzarrean. Horrekin batera, diru laguntza eskatuko diote Udalari. Eta janaria ere batuko dute, gero hara bidaltzeko. Hain zuzen ere, hil honen 20tik 31ra arte ibiliko dira janaria batzen. Hiru lekutan jasoko dute: udaletxean, Hiper Eroskin eta BMn. Azukrea, leka-leak (babak, dilistak...), zerealak, pasta, olioia eta atun edo sardina latak eraman behar dira, jaki horiek behar dituzte-eta.

Horrez gain, dirua ere batuko dute, batutako janari guztia Tyn-douf-eko kanpamentuetara eraman ahal izateko. Hala, Euskadi-

ko Kutxan kontu-korrontea zabaldu dute laguntza eman gura duenarendako: 3035006045060004746.9 zenbakia du kontu-korronteak.

Saharari laguntzeko kanpaina Udaleko Ongizate Sailak bideratu du, Arrasateko gobernuz kanpoko zenbait erakunderekin lan-kidetzan. Hain zuzen ere, honakoak ari dira lanean: Harreman, Mugarik Gabeko Ingeniariak, Komite Internazionalistak, SER-SO San Viator eta Caritas.


27 URTE ERREFUXIATUTA

Dagoeneko 27 urte daramatzate sahararrek Aljeriako kanpamentuetan errefuxiatuta. Beti bizi izan dira oso egoera gogorrean, batez ere, basamortuko baldintza gogorrenatik. Baina orain, txarrera egin du egoerak. Izan ere, ACNUR erakundetik dirulaguntza txikiagoa jasotzen dute, zenbait herrialdek ez dute onartu-eta haiei laguntza ematea (Frantziak, esate baterako). Fronte Polisarioko ordezkari batek Arrasate Irratari esandakoaren arabera, orain arte ez dute lortu errefuxiatuak menderatzea, eta orain ere, gosearen bidez menderatzen ahalegindu arren, ez dute lortuko.



SORGINAK EMAKUME TALDEA

Iaz, ibarreko ordezkariak Saharan izan ziren, haien egoera latza ikusten.



ISO 9001:2000 anbulatorioari

Arrasateko anbulatorioak ISO 9001:2000 saria jaso du, bezeroari ematen dion harreraren kalitateagatik. Hala erabaki du AENOR erakundeak, ISO sariak ematen dituen erakundeak, alegia. Besteak beste, harrera zerbitzua, informazio zerbitzua, administrazioen kudeaketa, aurretiko hitzorduen zerbitzua eta zenbait errezeta emateko zerbitzua kontuan hartu ditu sari hori emateko. Oro har, AENOR erakundearen ustez, anbulatorioak bezeroen beharrik asetzen ditu. /UM

LABUR

Greba luzatu egingo duela erabaki du erizainen sindikatuak (SATSE)

Erizainen sindikatuak (SATSE) grebarekin jarraitzeko asmoa duela adierazi du. Hain zuzen ere, beste sei egunetarako greba deialdia egin du SATSEk. Basurtuko, Donostiako eta Arrasateko osasun etxeetan egingo du greba hori. Horrela, Arrasaten otsailaren 18rako eta 19rako deitu du greba. SATSE sindikatuaren arabera, Osakidetzak ez du erakutsi konpromisorik hartzeko asmorik, eta horregatik jarraituko dute protesta ekimenekin.

Mediku berria dago Arrasateko anbulatorioan urtarrilaren 2a ezker

Aspaldi eskatu zuten Arrasateko anbulatorioko arduradunek beste mediku bat anbulatorioarako. Kontua da mediku bakoitzak 2.200 gaixo zituela bere ardurapean eta jendeak dezente itxaron behar izaten zuela. Hala, mediku berri horrekin, besteak beste, gutxiago itxaron beharko dute erabiltzaileek eta medikua bera ere lasaiago ibiliko da. Elgoibartarra da mediku hori eta Olga Zengotita du izena.

POLITIKA/ PSE-EE taldeko zinegotziak Arrasateko hiru gazte salatu zituen

Matilde Martinen salaketan gainekeo prentsaurrekoa

UBANE MADERA

Udaleko PSE-EE taldeko zinegotzi Matilde Martinek egindako salaketak direla-eta, prentsaurrekoa izan zen astelehenean. Hain zuzen ere, salaketan ondorioz Auzitegi Nazionalan izan ziren gazteek egin zuten prentsaurrekoa.

Joan den azaroaren 5ean, Guillermo Ruiz Polanco epailearen aurrean deklaratu behar izan zuten Gaizka Azkarate, Saioa Alzua eta Lur Pagoaga arrasatearrek. Izan ere, Matilde Martin zinegotziak salatu zuen hiru gazte horiek bera mehatxatu zutela.

Hain zuzen ere, zinegotzi sozialistak egindako salaketan zentzugabekeria azaltzeko, salaketa horiek oinarrikerik ez dutela adierazteko eta euren jarrera azaltzeko egin zuten prentsaurrekoa hiru gazteek.

GAIZKA AZKARATE ETA SAIOA ALTZUA

Gaizka Azkarateren eta Saioa Alzuaren kasuan, ekainaren lehen Hiper Eroskin erosketak egiten ari zirela, Matilde Martin zinegotzia eta haren bizkartzain bat mehatxatu zituztela salatu zuen Arrasateko zinegotzi sozialistak berak. Bi gazteen esanetan, berriz, zinegotzia eta bizkartzaina hasi ziren eurak probokatzen eta mehatxatzen. Euren esanetan, azken baten,



AITOR URIZAR

Euren jarrera azaltzeko egin zuten prentsaurrekoa hiru gazteek.

ez da logikoa armatuta doazen bi bizkartzainek babestutako zinegotziaren kontra egitea.

LUR PAGOAGA

Lur Pagoagaren kasuan, berriz, Matilde Martinek salatutakoaren arabera, maiatzaren 30eko osoko bilkuran eskuarekin mehatxua egin zion. Lur Pagoagak ukatu egin du salaketa hori.

Bestalde, ARRASATE PRESS behin eta berriro ahalegindu da Matilde Martinekin harremanetan jartzeko, zinegotzi sozialistak

gertatutakoaren bertsioa kontu zezan; edozelan ere, ez dugu lortu harekin berba egiterik.

Polanco epaileak 18.000 euroko fidantza ezarri zien hiru gazteei kartzelara ez sartzeko; gainera, epaiketa egin arte (urtebete ingurura arte-edo), astero epaitegian sinatu beharko dute; eta, jakina, ezin dira Espainiako Estatu-tik atera. Era berean, Auzitegi Nazionalan tratatu txarra izan zutela salatu zuten. Horrekin batera, kontatutako gertaeren lekuko bila ari direla adierazi zuten.

GIZARTEA/ Boluntarioen zerrenda egingo du Eusko Jaurlaritzak

Euskadiko kostaldean fuela batzeko boluntarioak

Zoritxarrez, Euskal Autonomia Erkidegoko kostaldeak arrisku egoeran daude azkenaldian, Prestige petroliontzia isuritako gero eta fuel-olio orban gehiago iristen dabil-eta gure kostaldeetara. Hori dela eta, eta nahiz eta

oraindik boluntario eskatu ez duten, Eusko Jaurlaritzak aurrez ikusi du herritarrak garbitze lanetarako boluntario aurkeztuko direla euren kabuz. Hala, Eusko Jaurlaritzak egokien deritza boluntario horiek boluntarioen

elkartea dituzten udalen bitartez bideratzeari.

Modu horretan, boluntarioak bideratzeaz gainera, garbitze lanak modu zuzenean egingo direla ziurtatu gura du Eusko Jaurlaritzak, beharrezkoak diren segurtasun neurriak zainduta.

Horrela, bada, garbitze lanetan lagundu gura duten arrasatearrek udaletxera jo dezakete, eta han oinarriko datuak hartuko dizkiete. Udaltzaingoa arduratuko da lan horretaz.

Eta, esan bezala, gero, Arrasateko Udalak datu horiek bideratu, eta Eusko Jaurlaritzak koordinatuko ditu.

DYA-N EDO GURUTZE GORRIAN

Gero, boluntario horiek Babes Zibilarekin, Gurutze Gorriarekin edo DYArekin egingo dute lan.

Gugandik gertu, besteak beste, Debako, Mutrikuko eta Zumaiako hondartzetara iritsi dira fuel-olio orbanak.



XABIER URZELAI

Haizearen noranzko aldaketak ekarri ditu fuel orbanak gure kostaldeetara.

LABUR

Tabernetan egiten diren emanaldien jarraipena egitea erabaki du Udalak

Arrasateko tabernetan egiten diren musika, antzerki edo beste-lako emanaldien jarraipena egitea erabaki du Arrasateko Udalak. Haren esanetan, mota horretako emanaldiak egiten diren tabernetako askok ez dute horrelakorik egiteko baimenik.

Hori dela eta, oraingo asteko Gobernu batzordeari proposatu diote Udaltzaingoa taberna eta emanaldi horien jarraipena egin dezala. Gero, emaitzak aztertu, eta Arrasateko Udalak gai horrekin zer egin erabakiko du. Gobernu batzordeak onartu egin du Hirigintza Sailak egindako proposamen hori.

Zabaleta aldean egiten ari diren lanen proiektuan aldaketak egin dituzte

Aldaketa bi egin dituzte Zabaleta inguruko lanen proiektuan: bate-tik, GI-627 errepideko zubia handitzea erabaki dute. Izan ere, aurre-ra begira, Eibar-Gasteiz autobideak eta Durango-Beasain errepide-ak inguru horretan bat egingo dute. Hala, horretarako egokiagoa da errepide zati hori zabalagoa izatea; bestetik, eta lanok gelditu daudela aprobetxatuta, ingurua zolatu eta modu egokian ipini zuten martitzenean. Hori bai, lanon ondorioz, auto ilara dezente luzeak sortu ziren. Horrez gain, herriko ur zikinak batzeko kolektorea luzatzea ere erabaki dute. Ur araztegiarekin bat egiteko luzatuko dute.

Kristina Goirizelaia arrasatearra atxilotu zuten joan den egubakoitzean

Joan den egubakoitzean, ustezko hiru ETakide atxilotu zituzten Frantziako Dax herrian; tartean, Kristina Goirizelaia arrasatearra. Gaizkile elkarteko kide izatea, armak eramatea, dokumentu faltuak eramatea eta autoa lapurtzea leporatzen diete atxilotutako hiru lagunei. Martitzenean pasatu ziren Laurence Le Vert epailearen aurretik. Horrez gainera, Espainiako Barne Ministerioak ETako kide izatea leporatzen die; hain zuzen ere, Kristina Goirizelaia Bizkaia Komandoko kide dela dio.




Zabaldutute drogen gainekeo erakusketa

Martitzenean inauguratu zuten drogen gainekeo erakusketa Monterronen ipini duten erakusketa. Argazkiak, bideo saioak eta informazio orokorra ikusi eta jasotzeko aukera ematen du erakusketa horrek. Aurkezpen ekitaldian izan ziren Eusko Jaurlaritzako Droga Gaietako zuzendari Gemma Calvet eta Debagoieneko udalako prebentzio teknikariak. Ekitaldian esandakoaren arabera, besteak beste, "drogen errealitatea gizarte-errealitateari lotuta dagoela" erakutsi gura dute. Horrela, legezko zein legez kontrako drogen gainekeo informazioa ageri da erakusketan.

2003AN JAIOTAKO LEHEN ARRASATEARRA, GALANTA

Apur bat itxaro behar izan dugun arren, dagoeneko badakigu zein den 2003an jaiotako lehenengo arrasatearra. Beñat Usandizaga izena du, urtarrilaren 9an jaio zen, eta jaiotzerakoan 5,110 kilo pisatu zuen. Argazkian aitarekin eta amarekin –Juan Mari eta Pepi– agertzen da Beñat Usandizaga. Badirudi 2003ko arrasatearrak gogor datozela, hortaz!



PAILAZOEEK ETA UMEEK LAGUN IZATEN JARRAITZEN DUTE

Joan den astelehenean eta martitzenean, Txirri, Mirri eta Txiribiton pailazoak Amaia Udal Antzokian izan ziren, Arrasateko umeei euren *Triki Traka Triki Tron* ikuskizun berria eskaintzen. Bi egunetan ume eta guraso mordoa hurreratu zen antzokira, eta barre handiak egin zituzten. Astelehenean, pailazoek okulista xelebre baten bisita izan zuten; martitzenean, berriz, *Kakusai* maltzuraren beste eraso bat jasan behar izan zuten. Saioak ETBrako grabatu zituzten.



EGUN HAUETAKO HOTZAREN ERAGINA ITZELA IZAN DA

Eguazten goizean, gure argazkilaria herriko inguru izoztuei argazkiak ateratzera joan zen, argazki aproposaren bila. Izugarriko hotza egiten zuen eta ez zen giro kalean pasean ibiltzeko. Ez zen, hortaz, oso egoera eroso. Halako baten, Santa Barbarako urmael ondotik zihoala, ahate batzuk ikusi zituen. Horietako batzuk urmaeleko ur izoztuetan igerian zebiltzan eta irudian agertzen den beste hori, berriz, geldi-geldi zegoen, gogortuta egongo balitz bezala.

Mondrak Oriokoren kontra jokatuko du bigarren itzuliko lehen partidua

XABIER URZELAI

Joan den astean, Arrasateko taldeak ez zuen barkatu. Josu Zubiriaren mutilak 1-4 nagusitu ziren Soraluzen. Soraluzeko Ezozia futbol zelaia txikia izan arren, ondo zegoen, eta mondragoetarrek futbolearen egiteko aukera izan zuten. Aurreikuspenak bete, eta erraz irabazi zuten partidua.

Mondrak joan den zapatuan jokatutako lehen itzuliko azkeneko partidua irabazi egin zuen. Soraluze izan zen kontrarioa, eta Mondrak ez zuen zailtasun handirik izan, 1-4 nagusitu zen-eta. Golak Ruben Ruedak, Jon Muruak eta Jon Lasagabasterrek egin zituzten. Azken horrek, Jon Lasagabasterrek, birritan zulatatu zuen soraluzetarren atea.

Lehen itzulia amaituta, etxeko taldea hirugarren dago, Zumaiakoren eta Urolaren atzetik. Joan den asteburuko albiste pozgarria Zumaiakoren berdinketa izan zen. Liderra sei puntura dago eta Urola puntu bazarra. Mondrak lehen itzuli ona egin du, baina aurreko bi taldeak hobeto ibili dira, Zumaiako, bereziki. Bestalde, ST Lizeoa errejonial mailako beste multzoko



XABIER URZELAI

Ligako lehenengo partiduan Mondrak eta Oriokok bana egin zuten.

liderra da, eta Mondrak baino bi puntu gutxiago ditu. Mondrak bi partidua galdu, hiru berdindu eta hamar irabazi ditu. Ez dira datu txarrak. Zumaiakok, berriz, hiru partidua berdindu ditu eta bat bera ere ez du galdu. Horrelako kontrario bati aurre egitea ez da erraza, baina Mondrak argi dauka egin beharrekoa: beharago dau den taldeen kontra ezin dute kalerik egin, eta Zumaiako Atxabalpera etortzen denean -denboral-

diko partidua garrantzitsuenak, irabazi egin beharko da.

Lerro hauek erraz idazten dira, baina bertan esaten dena betetzea ez da batere erraza. Hala ere, arrasatearren helburua mailaz igotzea bada, eta beste taldeak zelan ari diren ikusita, etxeko taldeak argi izan beharko luke hanka-sartze txikiena garesti ordainduko litzatekeela. Orioko taldea hamabigarrena da; hortaz, hiru puntuak, etxera.


FOTOKIROLA



Eskubaloian, talde biak ondo

Senior mailako taldeak emaitza ez zuen aldeko izan, baina Pitxi Herreroen mutilek partidua ona egin zuten. Urolaren kontra jokatutako zuten, eta arrasatearren aurretik izan ziren markagailuan, Oier Ortizek min hartu zuen arte. Oierrek hutsune handia utzi zuen, eta kanpotarrek ederto aprobetxatu zuten hori. Urola 23-26 nagusitu zen. AGRk, berriz, bolada onari eutsita, 24-27 irabazi zion Loiolari. Etxekoek alde handia izan zuten, baina azken minutuetan Loiolak aldea murriztu zuen.

FOTOKIROLA



Eskuz binakako partidu profesionalak, domekan, Uarkapen

Arrasateko pilotazaleek hitzordu garrantzitsua izango dute asteburuan. Domekan, Eskuz Binakako Txapelketaren barruan, Olaizola I.ak eta Patxi Ruizek Xalaren eta Lasaren kontra neurtuko dituzte indarrak. Hortaz, joan den urteko eskuz binakako finala jokatutako zuten pilotariak aurrez aurre izango dira. Pilota jaialdia 17:00etan hasiko da, eta lehenengo zeingehiagoka bigarren mailako Eskuz Binakako Txapelketakoa izango da: Beloki II.ak eta Pinedok Saralegiren eta Beginoren kontra jokatuko dute. Horren ondoren eskuz binakako partidu nagusia izango da, eta, pilota jaialdia amaitzeko, Salaberriak eta Balerdik Retegi VI.aren eta Medinaren kontra jokatuko dute.

BESAIDE

Besaide Mendi Elkarteak mendiko eski irteera antolatu du aste bukaeran

Besaide Mendi Elkarteak Tena ibarrera (Aragoiko Pirinioak) mendiko eski irteera antolatu du. Gainera, azken egunotan egindako elurteak kontuan hartuta, eskiatzeko egoera ezin hobean izango dira Pirinio aldeko mendiak.

Bihar, zapatua, irtengo dira, Garibai etorbideetik, goizeko bostetan. Mendiko eski irteeran parte hartzeko beharrezkoa da eskiatzen apur bat jakitea, eskiatzeko materiala izatea eta granpoiak, pioletak eta arropa egokiak eramatea.

ATLETISMOA

Arrasatearren gutxigatik ez ziren podiumera igo Gipuzkoako Pista Estaliko Txapelketan

Joan den zapatuan, Gipuzkoako Pista Estaliko Txapelketa jokatutako Anotan. Arrasateko atletek lan polita egin zuten, baina ezin izan ziren podiumera igo. Hala, 60 metroetako lasterketan Loren Avila laugarren izan zen; 7"47 segundo behar izan zituen 60 metroak egiteko. Bestalde, 400 metroetan Manu Anguas ere laugarren izan zen (52"3). Martin Dávila ere 400 metroetako lasterketan izan zen, baina epaileek kanporatu egin zuten. Unai Sarabiak ezin izan zuten lasterketan partetik hartu, eta askok faltan sumatu zuten.

YOGA

Arrasateko Yoga Elkarteak ikastaroak antolatu ditu urtarilean, otsailan eta martxoan

Arrasateko Yoga Elkarteak Yoga ikastaroak antolatu ditu. Urtarrilean hasiko dira. Ikastaroan hainbat maila izango dira. Urtarrilaren 22an, hasiberriendako ikastaroak hasiko dira. Ikastarorik hilaite bi iraungo dute; martxoaren 26an amaituko dira. Joan den astelehenean, hobekuntza ikastaroak hasi ziren, eta horiek ere hilaite bi iraungo dute. Informazio zabalgoa gura izanez gero, deitu 943 79 20 85 edo 943 79 66 98 telefonoetara.



GOIATZ ARANA

Arrasateko taldeak zeingehiagoka gogorra jokatu zuen joan den asteburuan Kakarraldoren kontra.

ERRUGBIA

Arrasateko taldeak hurrengo fasea hiru punturekin hasiko du

Arrasate Errugbi Taldeak 6-3 irabazi zion Kakarraldori zapatu arratsaldean

XABIER URZELAI

Arrasate Errugbi Taldeak emaitza ezin hobekak eskuratu ditu Liga Txapelketako lehenengo fasean. Bigarren fasea ere ondo hasiko du, Kakarraldori irabazi eta gero hiru punturekin hasiko du-eta ligaxka. Edozelan ere, lan handia eginez irabazi zuen etxeko taldeak zapatuan.

Zeingehiagoka gogorra jokatu zuten joan den zapatuan Arrasatek eta Kakarraldok. Etxeko taldea 6-3 nagusitu zen. Garagartzara hurreratu ziren jarraitzaileek ez zuten entsegu bat bera ere ikusi,

zigor-kolpeetan erabaki zen-eta partidua. Etxeko taldeak zigorkolpe bi izan zituen, eta Oxel Etxeberriak ez zuen barkatu. Mondragoetarrak egindako jaurtiketak zutoin artera joan ziren, eta sei puntu eskuratu zituen.

Kakarraldok, bestalde, partidua amaitzeko minutu gutxi falta zirela partidua berdintzeko aukera izan zuen, zigor-kolpe bat izan zuten-eta. Baina Kakarraldoko jokalariek ez zuen baloia behar den moduan jaurti, eta puntuak etxean geratu ziren. Arrasate eta Kakarraldo hurrengo fasean izango dira, baina euren artean ez dute berritoki jokatu,

joan den asteko partidua hurrengo faserako baliagarria zen-eta.

HURRENGO FASEAN, TALDE GOGORRAGOAK

Talde batzuek oraindik ez dute lehenengo fasea amaitu; hortaz, oraindik ez dago jakiterik zeintzuk izango diren oraingo faseko aurkari guztiak. Hurrengo faserako sailkatuta daude: Gaztedi, Elorrio, Getxo, Kakarraldo, Kantabriako talde bat eta Arrasate. Bestetik, ikusi egin behar Eibar edo Mungia sailkatzen den. Fasea otsailaren lehen hasiko da; hortaz, arrasatearrek bi asteko atsedena izango dute. Aprobetxa dezatela, ligaxka gogorra izango da-eta.

FOTOKIROLA



Markel Blanco, lehena Elgoibarren

Arrasateko lasterkari gazteak sekulako erakustaldia egin zuen, domekan, 25. Juan Mugerza krosean. Atleta gaztea lehena izan zen infantil mailan, esprint ikusgarria egin eta gero. Gazte mailan Endika Donai 13.a izan zen; gizonetakoetan Javier Mentxaka 4.a izan zen eta Cesar Diez, 15.a. Emakumetakoetan, berriz, Marifran Alonso 3.a izan zen eta Maria Jose Gil, 8.a. Lan ona, hortaz, Arrasateko atleten egindakoa.

ZALDIBARARETOFUTBOLA

EMAITZAK

A MULTZOA

Saukelu Scream - Al Kaeda	5-1
Makanaki - Komando Alpagat	3-2
Betrayer - Etxerat	2-5
Maldifa's - You Know!	0-1
Goma2 - NS/NC	4-6
Rayo Aldeano - Lasagabaster	0-1
Abocajarro - Lasagabaster	3-5

B MULTZOA

El Ekipo A - AC Surcos	3-12
Bikain Akad - Etxinai!	10-6
Koka Juniors - AT Celaya	3-4
Billy & The... - Aurrera Bolie	2-7
Saloga - Fuxxion	5-12
Dribling.es.vg - Whiskeria	14-0
Fraguel Gol - Estu Ta Larri	7-5

SAILKAPENA

A MULTZOA

	P	J
1. You Know!	12	8
2. Makanaki	12	8
3. Saukelu Scream	11	8
4. Iriztu Taberna	11	8
5. Etxerat	10	8
6. Komando Alpagat	9	8
7. Betrayer	9	8
8. Goma-2	9	8
9. NS/NC	7	8
10. Lasagabaster	7	8
11. Al Kaeda	5	8
12. Abocajarro	4	8
13. Maldifa's	3	8
14. Rayo Aldeano	3	8

PARTIDUAK

URTARRILAK 18, ZAPATUA. EPAILEAK

09:50: Makanaki - You Know!	Goma-2
11:00: Goma-2 - Lasagabaster	You Know!
12:00: A.C. Surcos - AT Celaya	Lasagabaster
13:00: Betrayer - NS/NC	A.C. Surcos
14:00: Billy & The... - Whiskeria	Betrayer
15:00: Dribling - Fragué Gol	Whiskeria
16:00: Saukelu S. - K. Alpagat	Dribling
17:00: Al Kaeda - Etxerat	K. Alpagat
18:00: Bikain Akad. - Aurrera Bolie	Al Kaeda

URTARRILAK 19, DOMEKA

11:50: Saloga - Estu Ta Larri	Etxinai!
13:00: El Ekipo A - Etxinai!	Saloga

Atsedena: Iriztu Taberna, Abocajarro, Koka Juniors, Fuxxion.

B MULTZOA

	P	J
1. AC Surcos	14	7
2. Dribling.es.vg	14	8
3. Fuxxion	12	8
4. AT Celaya	11	8
5. Bikain Akademia	11	8
6. Koka Juniors	10	8
7. Aurrera Bolie	9	7
8. Fragué Gol	7	8
9. Etxinai!	6	8
10. Billy & The Cowboys	6	8
11. El Ekipo A	6	8
12. Saloga	2	8
13. Estu Ta Larri	2	8
14. Whiskeria	0	8

BESTE TALDE BAT GUTXIAGO

MALDIFA'S TALDEAK AGUR ESANGO DIO TXAPELKETARI

Argi dago aurten talde batzuek joan den urteko bidetik jarraitzen dutela, eta talde horietako bat Maldifa's da. Azkeneko partiduan Kopando Alpagat taldeak 2-13 irabazi zion, eta joan den asteburuan, gehienek partidura ez joatea erabaki zuten. Zapatu arratsaldean jokatu beharreko partidura hiru jokalarik baino ez ziren azaldu. Ondorioz, ez zen partidurik jokatu eta You Know taldekoei eman zizkioten bi puntuak.

Horrez gain, Al Kaeda taldeko jokalarik batek partidua bateko zigorra bete beharko du. Saukelu Scream taldeko jokalarik batekin ika-mikaren bat izan zuten-eta.

B MULTZOAN, A MULTZOAN BAINO ASKOZ ERE GOL GEHIAGO

Azken jardunaldietako taulei erreparatuta, argi dago B multzoko taldeek A multzokoekin baino askoz ere gol gehiago egiten dituztela. Joan den astean, adibidez, A multzoan 38 gol egin zituzten; B multzoan, berriz, gol kopuru hori eraz gaituzten zuten, 90 gol egin zituzten-eta. Datu horien zergatia bilatzerakoan aukera bi daude: baliteke B multzoko aurrelariak trebeagoak izatea edo A multzoko taldeen defentsak lana hobeto egitea.

KIROLAGENDA

JOKATZEKOAK

FUTBOLA

Orioko - Mondra	Erregionala. Zapatuan. 16:30. Orion.
Añorga - Mondra	Ohor gazt. Domekan. 11:30. Donostian.
Arrasate - Urola	Kadet. Zapatuan. 15:45. Atxabalpen
Urola - Arrasate	Big. kadet. Domekan. 10:30. Zumarragan.

SASKIBALOA

Kenci Arrasate - Ursulinas	Seniorrak. Zapatuan. 18:00. Iturripen.
Kenci Arrasate - Andraitz	Jun. giz. Zapatuan. 16:00. Iturripen.
Kenci Arrasate - Andraitz	Kad. giz. Zapatuan. 16:00. Baldan.

ESKUBALOA

AGR Arrasate - BKL CAF	Lehen seniorrak. Zapatuan. 18:00. Iturripen.
------------------------	--

Donibane Majestic - Arrasate

Bigarren seniorrak. Zapatuan. 17:30. Donibanen.

Donibane - Gatz Museoa

Gazteak (A). Zapatuan. 16:00. Donibanen.

Arrasate - Xarpot Kafetegia

Gazteak (B). Zapatuan. 16:00. Musakolan.

EMAITZAK

FUTBOLA

Erregionala: Soraluze - Mondra 1-4

SASKIBALOA

Seniorrak: Siglo XXI - Kenci Arrasate 72-74

ERRUGBIA

Seniorrak: Arrasate - Kakarraldo 6-3

ESKUBALOA

Loiola - AGR Arrasate 24-27

Arrasate - Urola 23-26

SASKIBALOIA

Kenci Arrasatek 72-74 irabazi zion liderrari, Siglo XXI talde gazteari, Bilbon

Iker Zubiriaren mutilek lan zailena egin zuten joan den asteburuan: liderrari irabaztea

XABIER URZELAI

Kenci Arrasatek, Gabonetako atsedeenaren ondoren, indarberrituta ekin dio Liga Txapelketari. Horren erakusle joan den zapatuko partidua izan zen, Arrasateko taldeak Siglo XXI talde indartsuari puntu biko aldeagatik irabazi zion-eta.

Espainia mailako jokalaria gazteekin osatutako taldeak ezin izan zuten joan den zapatuan Arrasateko taldea menderatu. Siglo XXI taldea partidua irabaztera ohituta dago, baina liga hasieran Arrasaten jokatu zutenean gogotik egin behar izan zuten lan etxeko taldeari irabazteko. Joan den asteburuan, berriz, Zorrozan jokatu zuten. Bazirudien arrasatearrek aukera txikiak zituztela partidua irabazteko, baina mondragotarrak noren kontra ari ziren ahaztu, eta sekulako partidua egin barik bilbotarrei aurre egiteko gai izan ziren.

Kenci Arrasate atzetik izan zen markagailuan; lehenengo

hiru laurdenetan, bai, behintzat. Azken minutuetan, ordea, Kencik gora egin zuen, Ander Mallabiarrenak ez zuen kalerik egin jaurtiketa libreetan, eta Mikel Pagaldaik ere saskiratze garrantzitsua lortu zuen. Hala ere, partidua erabakiko zuen saskiratzea falta zen. Zeingehiagoka amaitzeko segundo gutxi geratzen ziren, eta markagailuak 72nako berdinketa erakusten zuen. Gorra Kintana baloiaz jabetu, jaurti, eta bi puntuak eta garaipena Kencirendako (72-74).

BIHAR, AURKARI ZUZENA ITURRIPEN

Joan den asteeko garaipena garrantzitsua izan zen, baina biharko partidua ere garrantzitsua izango da Kencirendako, aurkari zuzena izango da-eta Iturripen. Iker Zubiriaren mutilek Ursulinas talde nafarraren bisita izango dute, eta talde nafarra Kenci baino postu bat gorago dago sailkapen nagusian.

Taldeak eskertuko luke bihar, zapatua, arratsaldean, zaleek partidua girotzea Iturripen.



Liga Txapelketako bigarren partiduan Siglo XXI taldeak justu-justu irabazi zion Iker Zubiriaren mutilei.



bonardi
monturak

...bat aukeratzea bakarrik gelditzen zaizu

R.R.S. Nº 164/99 I.L.G.

MULTIOPTICAS

beti zurekin



BERGARA
Tel. 943 76 15 75



ARRASATE
Tel. 943 79 29 95



ORDIZIA
Tel. 943 88 99 88



EIBAR
Tel. 943 20 05 22



ERRETERIA
Tel. 943 51 78 11

Bereziki, kalean ikusten denak ezartzen du jendeak gurago duen moda

Edertasunak horrenbesteko garrantzia duen garai honetan, guk ere horretan sakondu gura izan dugu, eta Ausart ile apaindegira jo dugu. Besteak beste, modak zer agintzen duen ikustea izan da gure asmoa. Jakina, ile apaindegi batek eskaintzen dituen modaren gaineko berritasunen bila joan gara. Esther, Maite eta Marisa aurkitu ditugu han, ile apaindegian lanean. Eta haiekin batera Txaro ere badago, estetika arloan lanean.

Estherrek, Maitek eta Marisak kontatu digute Ausart ile apaindegian denetarik egin daitekeela: "Asmoa zen zerbitzu osoa eskaintzea. Horrela, esate baterako, andregairen bat etorri gero, hemen egin ahal du behar duen guztia: solariuma, makillajea, eta abar".

Horrekin batera, esan digute edozein joan ahal dela Ausart ile apaindegira; hau da, umeak, gazteak zein nagusiak; eta, jakina, baita emakumeak zein gizonezkoak ere.

METXA BERRIAK

Oraingo modaren gainean, berriz, esan digute metxak moda-modan daudela. Eurek ere badute eskaintza zabala ile apaindegian. Baina azpimarratu digute metxa horiek ez direla orain artekoen modukoak, bereziak dira: "Keratinaren bitartez lotzen zaizkio ileari; hortaz, ez dago ilea zertan koloregabetu eta ileari kalte egin. Gainera, asperitutakoan kendu gura izanez gero, ez dago ilea moztu beharrik; izan ere, metxak kendu egiten dira. Horiexek dira metxa horien berritasunak".

Gazteek zein nagusiek erabili ahal dituzte metxa mota horiek: "Ileari beste ukitu bat emateko bidea da, itxura klasikoetatik ihes egiteko. Hori bai, jeneralean, jende gaztea gehiago ausartzen da horrelakoekin". Edozelan ere, animatuz gero, kolore asko



Ile apaindegiko zerbitzuak eta estetika zerbitzuak eskaintzen dituzte Ausart ile apaindegiko langileek.

daude aukeran: fantasiako metxak (berdeak, urdinak, arrosak...) edo kolore naturalak (marroiak, horiak...). Eta orain arte, jendea pozik dabil metxa berriekin: "Izan ere, gaur egun, askok, ilea ez kolo-

regabetzearen, gurago izaten dute tindatu beharrean kolorezko bainuak ematea. Horren ondorioz, oraingo metxa berriak ezin hobeak dira horretarako: "Koloratzailea erabili barik, gura duzun tonua lor-

daiteke. Baina, batez ere, ileari kalterik ez egiteko bide onena da".

Gizonendako ere gomendatuta daude metxa berriak, "baina, batez ere, gizon gazteak animatzen dira horrelakoak egitera. Kolore gehiago erabiltzen dituzte gazteek".

Modaren gainean, berriz, esan digute jendeak eskatzen dituen ile mozketa edo orrazkera gehienak kalean edo telebistan ikusi dituztenak direla; hau da, kaleak zehazten du modaren zati handi bat: "Ikastaroetan eta oso gauza ikusgarriak erakusten dizkigute, baina gero, horrelakoak gutxi erabiltzen dira kalean".

Eta, hain justu ere, gaur egun, metxa asko ikusten gabilta kalean; hortaz, modarekin bat egin gura duenak Ausart ile apaindegira joan eta horrelakoak eskatu besterik ez du.

ESTETIKA

Baina, lehen esan dugun moduan, ilea apaintzeaz gainera, bestelakoak ere egin daitezke Ausart ile apaindegian: solariumean beltzaran ipini (geroko dutxa eta guzti), depilazioak egin (elektrikoak, argizariarekin, laser bidez...), masajeak, makillajeak, pedikurak, gorputz eta aurpegi tratamenduak... Lehen esan dugun moduan, Txaro arduratzen da horretaz. Donostiarra da Txaro, baina orain dela urte asko bizi da Arrasaten. Eta oso ikastaro bereziak eskaintzen ditu Txarok: makillatzen ikasteko ikastaroak: "Arrasatera etorri aurretik, Donostian irakaskuntza arloan ibili nintzen, makillajea erakusten. Antzerkian eta telebistan ere ibili nintzen. Eta orain, hemen mota horretako ikastaroak ematen ditut, batez ere, neguan; gainera, jende askok parte hartzen du ikastaroetan". Ikastaro horien ordutegiak bezeroen arabera ezartzen ditu Txarok.

Edertasun Gida



Maalako Errabala, 21-B
ARRASATE
Tel.: 943 77 16 31

AUSART
Ile apaindegi mistoa
Estetika zentroa
Txaro Camizo
Iturriotz kalea, 24. Tel.: 943 77 30 60
943 77 21 58

Lore

Olarte, 10 • ARRASATE • ☎ 943 79 52 50
Lurrindegia eta estetika zentroa

KORONA NEAL Ayer HR CLASSIS BIOTHERM VALMONT



ILEA

Ferrerias, 14. 943 79 87 62

Edertasun Gidan parte hartzeko, deitu 943 71 23 91 telefonora

URTEURRENA/Egipe elkarte gastronomikoak 25 urte bete ditu

Egipe elkartearen 25 urteko gainbegiratu, liburu baten



Egipe elkarteak hainbat ekintza antolatu ditu 25 urtean, eta bazkideek hainbat pasarte dituzte gogoan.

IKER BARANDIARAN

Santa Marinako Egipe elkarte gastronomikoak 25 urte bete ditu. Urteurren hori ospatzeko, Egipeko bazkide baterano batzuek elkartearen historia laburtzen duen liburua argitaratu dute. Bihar, zapatua, bazkaria egingo dute bazkideek eta haien emazteek.

Bixente Azkaratek prestatutako liburuan Santa Marinako Egipe elkartearen jaiotza eta nondik norakoak azaldu dituzte. Orain dela 25 urte, Santa Marinan Centro de Accion Catolica bakarrik zegoen. 60ko eta 70eko hamarkada bitartean, Arrasateko biztanle kopurua bikoiztu egin zen, eta Santa Marinan etxe berri ugari egin zituzten. Horren ondorioz, auzotarrek beste elkarte baten beharra zuten.

“Gorpuzti egun batez, txiki-teoan genbiltzala, ume batzuk lokal huts baten sartzen ikusi genituen. Hori ikusita, lokalaren jabearengana jo genuen, eta ea saltzeko zeukan galdetu genion. Egun berean egin genuen tratua, eta 18:00etarako kontratua egina geneukan”, kontatu zigun Bixente Azkaratek.

Hamasei lagun batu, dirua jarri, eta elkarte zabaldu zuten. Are gehiago, 1978an, Egipe azpiko altzari dendari beheko solairua erosi zioten eta elkarte handitu egin zuten. Handik aurrera, biltegia, areto nagusia eta jangela berria osatu zituzten, besteak beste.

Elkarteak 50 bazkiderekin hasi zen, eta egun 60 bazkide ditu. Kopuru horretan dute bazkideen muga. Ez ei da jende gehiago sartzeko. Gazteenak 26 bat urte ditu eta zaharrenak, berriz, 83.



Auzoko erreferentea da

Egipe gastronomia elkarteak, 1977ko abenduaren 31n inauguratu zutenetik gaur egunera arte, erreferente bilakatu da Santa Marina auzoan.

Urtero, Santa Marinako jaietan Egipe elkarteko ateak jende guztiari zabaltzen dizkiote. Horrez gain, azken urteotan, auzoko jaietako herri bazkaria elkarte berran egiten dute.

Bihar, zapatua, kontu horiek guztiak eta beste asko berbagai izango dituzte elkartearen egingo duten bazkarian. Bazkide guztiak, haien emazteak eta hildako bazkideen alargunak gonbidatu dituzte. Gainera, bazkalostean, Egipe elkartearen Karta Txapelketako sariak banatuko dituzte.



ARTXIBOA

Irudian, iazko Aratusteetako lehiaketa irabazi zuen kartela.

Aratusteetako Kartel Lehiaketa antolatu du Kultura Sailak

I.B.

Urtero moduan, aurten ere Udaleko Kultura Sailak Arrasateko Aratusteak apaindu eta irudikatuko dituen Kartel Lehiaketa antolatu du. Lanak aurkezteko epea otsailaren 14an bukatuko da.

Arrasateko Udaleko Kultura Sailak Aratusteak irudikatuko dituen Kartel Lehiaketa antolatu du. Lehiaketa horretan Arrasaten bizi den edo Arrasaten erroldatuta dagoen edonork har dezake parte. Kartelaren neurriak 50 x 70 cm izan beharko du eta formatuak, nahitaez, bertikala izan beharko

du. Euskarri informatikoan (disketean) ere aurkeztu ahal izango da kartela, DIN-A3 tamainako paperean inprimatuta. Teknika librean izango da, eta derrigorrez testu hau izan beharko du: 2003 Haratuzteak Arrasate.

360 EUROKO SARIA

Kartelak Arrasateko Udaleko Kultura Departamentura bidali beharko dira, otsailaren 14a baino lehen. Saritutako lana Arrasateko Udalen esku geratuko da, eta kale-ratzeko eskubidea izango du.

Irabazleari 360 euro emango dizkiote, eta gainerako lanak hogeita hamar egunera jaso ahal izango dira.

MUko Kirol Zerbitzuaren Argazki Lehiaketa, abian

I.B.

Aurten ere Mondragon Unibertsitateko Kirol Zerbitzuak Argazki Lehiaketa antolatu du. MUn matrikulatutako ikasleek eta hango langileek parte hartu ahal izango dute, eta gaia *Kirolaren aurpegiak* izango da.

Mondragon Unibertsitateko Kirol Zerbitzuak Argazki Lehiaketa antolatu du. Aurtengo lehiaketak honako leloa izango du: *Kirolaren aurpegiak*. Argazkiak zuri-beltzean edo koloreetan aurkeztu ahal izango dira. Bestalde, argazki bana edo bilduma (gehienez, hiru argazki) bidal dezakezue.

Argazki guztiak lelo batekin sinatuta egon beharko dute eta otsailaren 14a baino lehen aurkeztu beharko dira MUko edozein egoitzatan. Honako sariak emango dituzte: 90 euro, zuri-beltzeko eta koloreetako argazki onenari; eta 180 euro, koloreetako eta zuri-beltzeko bilduma onenari.

Lehiaketako epaimahaia argazkilaritzako hainbat adituk osatuko dute. Lana baloratzera-ko orduan, kalitate tekniko eta artistikoaz gainera, gaia islatzeko orijinaltasuna hartuko dute kontuan. Erabakia otsailaren 20an emango dute ezagutzera, eta sari banaketa otsailaren 27an egingo dute, Eskoriatzan.

KULTURAPILULAK

Arrasate Musikalek informatika musikaren gaineko ikastaroa antolatu du

Arrasate Musikalek hiru hilabete iraungo duen informatika musikaren gaineko ikastaroa antolatu du. Ikastaroa otsailaren 3ko astean hasiko da, eta astean behin emango dute, ordubete. Partituraren edizioa eta musika moldaketak landuko dituzte. Ikastaroan izena emateko epea urtarrilaren 20an irekiko dute eta urtarrilaren 31n bukatuko da (943 79 06 83 edo 943 77 05 40).

E, TXO!

GUREGAIK / UARCAPEKO GAZTETXE BERRIA

Gazte batzarrak Uarkapeko gaztetxe berriaren funtzionamendua zehaztu du

GAZTE BULEGOA, ASTEBETEZ ITXITA

Urtarrilaren 20tik (astelehena) 26a arte (domeka) Gazte Bulegoa itxita egongo da. Izan ere, Gazte Bulegoko ardura-dunak jakinarazi digunez, azkeneko egunotan leihoak aldatu dituzte eta teilatua konpondu dute. Datorren astean, berriz, Gazte Bulegoa margotu egingo dute, eta, hori dela eta, zerbitzua eten egingo dute. Dena dela, hilaren 27tik aurrera Gazte Bulegoa ohiko ordutegian egongo da zabalik.

GAZTEEN KONTSEILUAREN LOGOTIPO LEHIAKETA

Arrasateko Udaleko Gazte Sailak Arrasateko Gazteen Kontseiluaren logotipoa aukeratzeko lehiaketa antolatu du. Parte-hartzaileek Arrasaten bizi, lan egin edo ikasten duten gazteak izan beharko dute, eta hiru kategoriatan banatu dituzte: 5 eta 12 urte bitarteko gazteak, 13 eta 17 urteko gazteak eta 18 eta 30 urte bitartekoak, hain zuzen ere. Lanak zuri-beltzean zein kolore-etan egin daitezke, eta teknika libre izango da. Sarietarako dagokienez, sari bana banatuko dute kategoriatan bakoitzeko: jostailu sorta bat, kirol material sorta bat eta 750 euro. Lana aurkezteko epea urtarrilaren 31n bukatuko da.

DROGEN GAINIKO ERAKUSKETA

Eusko Jaurlaritzak bideratuta eta *Drogak: gizarte gaia* izenburupean, erakusketa jarri dute Monterron jauregian. Erakusketak zazpi gai landu ditu, hala nola: *Alkohola; Drogak eta legea; Drogak eta bazterkeria; Drogak osasun arazo moduan; Harrera etxeak; Drogen kalteak zelan gutxitu; eta Dopina kirolean.*

IKER BARANDIARAN

laz, uztailan, ospitaleko zaharreko gaztetxea itxi zutenetik aurrera, martxoan, gaztetxe berria zabalduko duten arte, gazte batzarra ez da geldirik egon. Barne hausnarketa handia egin, eta gaztetxe berriko funtzionamendua adostu dute.

Ospitale zaharreko gaztetxea 2002an, uztailan, itxi zuten, eta orduz gero gazte batzarrak ez dauka gaztetxerik. Uarkapen gaztetxe berria eraikitzen ari dira, eta Udalak martxoan zabalduko duela iragarri du. Iazko udatik gaur arte, ordea, gazte batzarra ez da geldirik egon. Egubakoitzero, Udalak Altamiran utzitako lokalean batzarrak egin dituzte gazteek, eta hainbat ekintza antolatu dituzte: mendi garbiketak, Maulera irteera, diaporama batzuk eta film laburren emanaldia, besteak beste.


UDALAREKIN HARREMAN ONA

Ekintza horiez gainera, Arrasateko Udaleko gazteria teknikariarekin hainbat batzar izan dituzte, Uarkapeko gaztetxea berrir definitzeko, aldaketak proposatzeko eta zalantzak argitzeko. Gazteen esanetan, Udalaren jarraia baikorra da eta gazteen iritzia uneoro kontuan hartu dituzte. Gazteek duten desadostasun edo kezka nagusia da gaztetxe berriak ateak noiz zabalduko dituen.

Bestalde, Udalarekin harremanetan izateaz gainera, uztaila ezker Euskal Herriko zenbait gaztetxe eta gazte batzarretako ordezkariarekin batzarrak egin dituzte, ezagutza eta esperientziak elkartrukatzeko.

Informazio hori guztia batu ondoren, gazte batzarrak asteburu iraun zuen barne mintegia egin zuen. Mintegi hartan Uarkapeko gaztetxe berriaren funtzionamendua eta eraikinaren beraren banaketa adostu zuten.

Hala, hainbat lantalde eratu dituzte: Aisialdia (gaztetxetik



Ospitale zaharreko gaztetxeak 2002an, uztailan, itxi zituen ateak. Irudian, gazteek gaztetxea husten.

UBANE MADERA

Udalaren eta gazte batzarraren idatzitako guztietan gaztetxe autogestionatua azpimarratu dute

kanporako ekintzak), Diruzaintza, Kultura (ikuskizunak) eta Komunikazio-propaganda.

Eta gaztetxeko giltzak zelari banatu ere erabaki dute: batzarraren dagoen koadrila bakoitzak ate nagusiko giltza bana izango du; tabernako ardura duen taldeak biltegiko giltza ere izango du; eta, azkenik, batzarreko lantaldeek bigarren solairuko giltzak izango dituzte.


Gazteek otsailan hasi gura dute gaztetxea margotzen eta hornitzen, eta uko egin diote udal aurrekontuetan egoteari.



Uarkapeko gaztetxea martxoan zabalteza espero dute.

AITOR URIZAR

Garagardo ona, giro hobea



TXIRRITA

Taberna

Gesalibar auzoa. Tel.: 943 79 10 35



ERRASTI KRISTALDEGIA

**Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
osagaiak**

Olarte kalea, 47 beheka Tel.: 943 79 22 55 / 943 79 14 25

**OSORIK
PUB**

Ignazio Zuloaga 4
ARRASATE

BEHEKOENPRESATIK

Juan Mari Osinaga

ZUTARRI ERAIKUNTZAK ENPRESAKUE

XABIER URZELAI

Juan Mari Osinagak 54 urte ditu, eta azken 37 urteik konstrukziñuen lanien emun ditu. Argi dago, hortan, lan horren gainean jakin biherreko dana dakixela. Zutarrri enpresiek 12 urte ditu, baiñe lehenago be leku askotan ibilli zan lanien. Konstrukziñoko lana gogorra dala esaten dau, eta ez jako arrazoirik falta.

Amets bat?

Helikoptero bat pilotetie.

Eta amets txar bat?

Neure amets txar bat oin dala hille bi hasi zan, Galizian.

Egin dozun azken biajie?

Ez die azkenak, baiñe bai neuretako inportantienak: batetik, Sri Lankara; eta, bestetik, Santiagora (Galizia). Santiagora biajie zaldi batekin eta karro batekin egin geuen anaiek eta bixok.

Txartel horixe, zeñei?

Inguruek zainketan ez dittue nei.

Eta gorrixer?

Horren txarto gobernetan dauen gobernantiei.

Pelikula bat? Liburu bat?

Musika talde bat?
Charlie Chaplinen *El gran dictador* / *Los pilares de la tierra* / Victor Jara gustetan jat.

Drogak legalizauko zittukie?

Iñungo duda barik.

Eta prostituziñue?

Hori be bai.

Ze dauketzu sobran?

Sobran ez dauket ezer ere.

Eta faltan?

Osasun apur bat.

Tabernetako txikiteue ala diskotekak?

Txikiteue, duda barik.

Etxeko zapatillak ala zapat?


Etxeko zapatillak.

Ze gustetan jatzu Mondraguetik?

Alde zaharrien dittugun hiru arkuek.

Alkate izengo bazitze, ze hobetuko zeunke?

Gaztiendako etxebizitzak eta



“Neure amets txar bat, gutxi gorabehera, oin dala hille bi hasi zan, Galizian”

kotxiendako aparkalekuek.

Eta lehendakari izengo bazitze?

Lehendakari izengo banitz...
Lakuan bizi izengo nitzake.

Bizio bat?

Neukenak kajoira juen die.

Ezagutu dozun pertsona interesante bat?

Eugenio Otsua *Gerra*.

Eta ezagutu nahiko zeunkeena?

Ernesto Guevara *Che*.

Tranpan ibilttekotan norbaittekin, zeñekin?

Tranpak, musien bakarrik.

Telebisiñoko programa bat?

ETBn arratsaldietan emuten dittuen *western*-ak.

“Konstrukziñuen lan gatzxena monumento historikuek konponketie izeten da”

Eta irratikue?

Mariano Ferrer entzuten dot, eta *El cocidito madrileño* programie be gustetan jat.

Etxe haundixek ala txikiñek gurago?

Familixie haundixe bada, etxie be haundixe, bestela, txikiñekin ondo. Biherraren arabera.

Ze konstrukziño mota da egitteko gatzxena?

Lan gatzxena monumento historikuek konponketie izeten da. Kontu haundiz ibilli biher da.

Zelan konponduko zeuke Eibar-Gasteiz autopistako zubixe?

Erantzune benetan ala brome-tan esango dutzut? Kontu haundiz.

NIREBIDAIAHURA/ Gorka Uriarte

Brasilera / 2002an, udan

Oraingo astean ere Brasilen jarraituko dugu, Gorka Uriarte *Txipi*-ren eta beste lau mondragoetaren bidaia kontatzen. Bost lagunak Porto Seguron utzi genituen joan den astean. Aurrekoan esan bezala, hamar egun egin zituzten Porto Seguron, eta handik, Salvador de Bahiara abiatu ziren. Hori bai, horretarako hamabi ordu egin zituzten autobusean. Salvador de Bahiako Farol do Barra auzoan izan ziren, eta hiri hura eta inguruak bisitatu zituzten. Ondoan zeuden uharte batzuk bisitatzeko aukera ere izan zuten, ferryan, baita hango parajeaz liluratzeko ere.

Salvador de Bahiako Pelourinho auzoan rasten komunitate bat dago, Rozinha izenekoa, eta hara sartzeko derrigorrezkoa da komunitate hartako jendearekin joatea. Azken bidaia Recifera izan zen, beste hamabi ordu autobusean pasatu eta gero. Horrenbeste bidaia egin ondoren, azkeneko egunak kostaldean egin zituzten, lasai asko; eta, hala, Arrasatera itzultzeko ordua iritsi zitzairen.

Kontatzeko moduko bidaia izan zen, baina Brasil apur bat ezagutzeko denbora luzea behar da: “Rio de Janeiro bi hilabete egonda ere, oraindik ez duzu ezer ikusi”. Herrialde batetik bestera arraza asko aldatzen eida: “Rio de Janeiroko bizilagunak Salvador de Bahiakoak baino askoz ere zuriagoak ziren, azken horiek Afrikako esklaboen oinordekoak dira-eta”. Jendearekin oso hartu-eman ona izan zuten, eta hori azpimarratzen du Gorkak: “Ez gintuzten ezagutzen, baina jende askok agurtu egi-ten gintuen. Agurtzeko ohitura handia dute han; izan ere, haien esanetan, inor ezagutu aurretik hobe da ondo has-tea gaizki has-tea baino”. *Txipi* birritan izan da Brasilen, baina gustura joango litzateke berriro ere.

XABIER URZELAI



Hulk, Bull, Aranbu, Txipi eta Karni, Brasilgo hondartza baten.

“Rion bi hilabete egonda ere, ez duzu ezer ikusi”

“Hango jendearekin oso ondo konpondu ginen”

Herrialde berriak bisitatu dituzu?

Zure bidaia kontatzeko prest zaude?
Anima zaitetz, zure abenturak gustura irakurriko ditugu eta!

Deitu 943 71 25 11 telefonora.



ZAHARREN ETXETIK



OKTUBRE TALDEA

Arrasatear asko eta asko egon ziren presondegietan edo kontzentrazio-esparruetan.

36ko gerran preso egon zirenek, kalte-ordainak jasotzeko aukera

IKER BARANDIARAN

Eusko Jaurlaritzak abian jarri du 36ko gerraren ondorioz kartzeletan edo kontzentrazio-esparruetan egon zirenei kalte-ordainak emateko ekimena. Ekimen hori azaroaren 11n onartu zuten, eta kalte-ordainak eskatzeko epea otsailaren 28an bukatuko da. Hortaz, epe hori oso laburra da, eta, horrez gainera, ez da horren gaineko informazio askorik ezagutzera eman.

Gure ibarrean, alderdi politiko batzuez gainera, zaharren elkarteek ere jaso dute informazioa, eta interesa duen edonork haiengana jo dezake.

Kalte-ordainak jaso ahal izateko, interesatuek azaroaren 29an 65 urte edo gehiago izan behar zituzten; era berean, askatasun barik sei hilabete baino gehiago pasatu behar izan dituzte laguntza horiek jasotzeko, eta, gutxienez, azkeneko urtean Euskal Autonomia Erkidegoan erroldatuta egon behar izan dute.

Bestalde, Espainiako gerraren

ondorioz askatasun barik egon zen laguna hilda badago, haren alargunak edo bikotekideak jaso ahal izango du kalte-ordaina.

Era berean, erretiro-pentsioa edo gerrako beste pentsioren bat jasotzen dutenek ere eskatu ahal izango dituzte kalte-ordainak; ez, ordea, 1991n arrazoi beragatik

7.200 euro, edo gehiago

Kalte-ordainak eskatzeko epea otsailaren 28an bukatuko da. Argi ibili, hortaz!

Askatasun barik 6 eta 12 hilabete artean pasatu dituztenek 7.200 euro jasoko dituzte. Hortik aurrera, sei hilabete bakoitzeko, beste 600 euro.

Eta gehienez jaso ahal izango dituzten kalte-ordainak 9.600 eurokoak izango dira.

dirulaguntzak jaso zituztenek. Eta 1991n dirulaguntza eskatu arren ukatu egin zietenek ere eskatu ahal dute.

DOKUMENTAZIOA BATU BEHAR

Eusko Jaurlaritzak ekimen horretarako 38 milioi euro bideratuko ditu, baina horretarako dokumentazio handia lortu behar dago: lehenik eta behin, Espainiako Estatuko Zigor Erakundeak egin beharreko agiria eskuratu behar dago (91 3354700 telefonora deitu). Erakunde horrek ziurtatuko du eskaera egin duen laguna presondegian edo beste-lakoetan egon den edo ez.

Agiri hori bideratzeak denbora luzea eman dezake. Baina eskaera egiteko denbora laburra dagoenez, Zigor Erakundea norberaren kasua aztertzen ari dela ziurtatzen duen abisuak kalte-ordainak eskatzeko balioko du.

Dena dela, eskaera orriak eta bete beharreko baldintzak Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Zerbitzuen Sailean (943 02 28 25) edo herriko zaharren elkarteetan eskura daitezke.

LABUR

Ibarreko zaharren elkarteetako batzordea lanean dabil buru-belarri

Debagoieneko zaharren elkarteetako batzordea lanean dabil buru-belarri. Urri bukaera aldera, kargu berriak aukeratu zituzten: Abarroako Jose Rivierek presidente kargua hartu zuen; Musakolako Jose Ramon Petreñasek, idazkari kargua; eta Antzuolako Juanita Zabalok, berriz, batzordekide kargua. Beste erakunde batzuen aurrean ibarreko zaharrak ordezkatzeko dute helburu nagusi.

Gaur, egubakoitza, Toki Argi elkarteeko karta-jokoaren txapelketen sariak banatuko dituzte

Gaur, egubakoitza, Toki Argi zaharren elkarteeko karta-jokoaren txapelketetako sariak banatuko dituzte, 21:00etan. Ekitaldia Santa Marina auzoko Egipe elkarte gastronomikoan egingo dute. Txapelketan hainbat karta-joko izan zituzten: tutea, musa, briska eta cuatrola, hain zuzen ere. Sariak banatu ondoren, parte-hartzaile guztiek luncha izango dute Egipe elkartearen.

ZAHARREN AHOTIK

Maria Segura

ERRETIRATUA

Maria Zarimutzen (Eskoriatzan) jaio zen, 1936an, baina 20 urte bete zituen ezkerro Arrasaten bizi da. Maria ez da inoiz izan geldo egotekoa.



Lanean ere ibilia zara, ezta?

Bai, Gasteiztik bueltan, Arrasateko Rima enpresako bulegoan lanean hasi nintzen. Astean Arrasaten bizi nintzen eta astebururo Zarimutzera jotzen nuen. Gero, Txema Urtzelarekin ezkondu nintzen. Rima enpresa Gasteizera eraman zuten arte han egin nuen lan, urte baten ume jaioberrria zaintzeko atsedean hartu nuen arren. Rima enpresa utzi eta gero, zortzi bat urtez Izadi belar dendan egin nuen lan, 60 urterekin erretiratu nintzen arte. 2002an, Abarroko batzarrean hasi nintzen.

Baserriko alaba zara?

Bai, Zarimutzeko (Eskoriatza) Segurena baserrian jaio nintzen. Hala ere, zazpi anai-arreba ginen, eta niri ez zitzaidan baserrian lan askorik egitea tokatu. 4 urterekin Marulandako herri eskolan hasi nintzen, eta han ibili nintzen 12 urte bete nituen arte. Oso irakasle ona izan genuen, Petrita Belamendia tolosarra, eta oso ikasle finak izan ginen. Gogoan daukat arratsero iturrira ur bila joaten nintzela.

Eta ikasten jarraitu zenuen?

Bai, horixe. 12 urterekin Gasteizko Institutuan hasi nintzen, eta Goi Batxilergo ikasketak egin nituen. Gure aitak Irakasle ikasketak egiteko esan zidan, baina ez neukan horretarako bokaziorik, eta, horren ordez, Mekanografia, Takigrafia eta Kontularitza ikasi nituen.

Monte
taberna

Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel: 943 79 76 58
ARRASATE

UGARTE

Industria
hornidurak

San Andres auzoa 2. 5-6 Pab.
Tel.: 943 -71 21 41
Faxa: 943 - 71 21 40



KONTRATAK
IRYROK S.L.
ERAIKUNTZAK

Meatzerreka, 5 bis • Apdo. 246
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 - 79 78 14
ARRASATE



ARRASATE
Aitor Larrea
Urtarrilaren 7an, 6 urte.
Zorionak! Arrasateko familia, Hasier eta Maddi.



ARRASATE
Amaia Letona
Urtarrilaren 12an, 7 urte.
Zorionak! Etxeko "partetik."



ARRASATE
Ramon Ramila
Urtarrilaren 10ean, urtebetetzea. Zorionak! Goienako langileak.



ARRASATE
Leire Badiola
Urtarrilaren 17an, 5 urte.
Zorionak! Etxeko "partetik."



ARRASATE
Markel Hernández
Urtarrilaren 16an, 11 urte.
Zorionak! Familia osoaren partetik.




ARRASATE
Odei Bouzón Otxoa
Urtarrilaren 16an, 4 urte.
Zorionak! Etxeko "partetik."



ARRASATE
Igor Fernández
Urtarrilaren 10ean, 16 urte.
Zorionak! Goienako lagunak.



ARRASATE
Aitor Urizar
Urtarrilaren 17an, 22 urte.
Zorionak, *Mutxin!* Ganoraz gosalduta!



ARRASATE
Sebas Gorosabel
Urtarrilaren 28an, 32 urte.
Zorionak, Sebas! Etxeko "partetik."



ARRASATE
"Amama" Pilar
Urtarrilaren 16an, urtebetetzea. Zorionak, amama! Etxeko "partetik."



ARRASATE
Pili Herrero
Urtarrilaren 6an, urtebetetzea. Zorionak, gaztetxo! Okindegiko lagunak.



ARRASATE
Jokin Zubiria
Urtarrilaren 16an, 15 urte.
Zorionak! Familiako "partetik."

Adi!

Argazkiak emateko lekua:

Arrasate:
ARRASATE PRESS
Otalora Lizentziaduna 31.

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak
ARRASATE PRESSen bidez! Ekar ezazu haren argazkia*
eta emaitza ezusteko ederra! **Doan!**

*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm.

Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu.
Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu zorion agurra ARRASATE PRESSen agertu ondoren.
Argazkia urtebetetze eguna baino astebete lehenago ekartzea komeni da.

**BASATI
TABERNA**
PINTXUAK, BORATAK ETA TRAGUAK
TEL. 943 711768

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea, 10
Tel.: 943 79 52 50

AGR
García Ripa
ERREFORMAK S.L.

Metal aroztegia eta PVC
Leihoak eta itxierak
Egur aroztegia
Leihoak
Ateak
Armairu enpotratuak
Armairu-fronteak
Mota guztietako zoruak
Lixatua eta bernizatua

Osagarriak
Neurrira egindako alfonbrak
Gortinak, mahai eta aulkiak

EZETZASMATU



XABIER URZELAI

Atxabalpe egin aurretik, Arrasateko futbol taldeak non jokatzeko zituen futbol partiduak?



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Ekarri txartela **EGUAZTEN**
GOIZERAKO ARRASATE PRESSERA!

Colon detergentea
36 ontzitxo + % 15 doan

8,90€ 1.481 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

IGNACIO IRIONDOrendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Ignacio!
Galderen erantzun zuzena:
Vasco Navarro tren.

ARRASATEKOHISTORIA

Oinaztarren eta Ganboatarren arteko borrokak Arrasaten

JON ANDER RAMOS

Garagartzara bidean, Ibarretako baserria zegoen lekuan, Markuleteko errotaren ondoan eta Uribarriko auzoa amaitzen den lekuan bi gurutze daude.

Baina 70eko hamarkadan, urbanizazio lanak hasi zituztenean, gurutzeak desagertu egin ziren obra-hondakinekin batera. Arazo horrek, baina, konponbidea izan zuen, gurutze zati bat Garagartza auzoko zelaietako baten agertu zen-eta. Zati hura gurutze berriak egiteko eredu moduan erabili zuten, eta bi gurutzeetako bat osatzeko ere aprobetxatu zuten, ezkerreko gurutzea, hain zuzen ere. Gurutze berriak 1985eko maiatzaren 25ean jarri zituzten.

Inaugurazio ekitaldian, besteak beste, Udaleko ordezkariak eta Uribarriko parroko Miguel Aranburu izan ziren. Parrokoak gurutzeak bedeinkatu zituen. Gurutze horiek 1464an inguru haietan izan ziren gertaerak gogorarazten dituzte. Sasoi hartan, Oinaztarren eta Ganboatarren arteko borrokak ziren nagusi, eta borroka haiek -gehienak-

“Arrasateko sutea bi bandoen arteko borroketan gertaturiko ekintza aipagarriena dugu”

“Jauntxo biak Ibarretako feriatik irten zirenean, bost Oinaztar zituzten zain”

Arrasateko sutearekin amaitu ziren, 1448ko ekainaren 23an, hain zuzen ere. Arrasateko sutea alderdikierietako ekintzarik nagusienean eta Oinaztarren eta Ganboatarren arteko borroketan gertaturiko ekintzarik aipagarrienetakoa dugu.

Edozelan ere, Arrasateko sutearen ondoren, bi bando haien arteko lehia oraindik ere bizi-bizirik zegoen, eta hurren-



UBANE MADERA

Gurutzeak desagertu egin ziren, eta Garagartzako zelaietan azaldu zen gurutze zati bati esker egin zituzten berriak.

go urteetan hainbat kontu-garbitze izan zen. Esate baterako, Bandoen arteko borroketa bat *Ibarretako hilket*a moduan ezagutzen da.

Hala, jauntxo bi, Artazubia-

gako Martin Bañez eta haren lagun Juan Ibañez de Barrutia, 1464ko maiatzeko egun baten hil zituzten, arratsaldez. Jauntxo biak askotan joaten ziren Ibarretako feriara, eta

arratsalde hartan ere ez zuten kalerik egin. Feriatik irteterakoan, baina, bost Oinaztar zain zituzten, aspaldiko kontuak garbitzeko asmotan, eta bertan hil zituzten.

Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2003ko urtarrilaren 17a / 49. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolara Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02

Garzonen errekerimendua eta aurtengo aurrekontua

UBANE MADERA

Eguaztenean, urtarrilaren 22an, urteko lehenengo osoko bilkura egingo dute udaletxean. Eta, gainera, gogor hasiko dute urtea; izan ere, besteak beste, 2003rako aurrekontua eta Garzon epaileak Aramaio-ko Udalari egindako errekerimendua aztertuko dituzte zinegotziek osoko bilkuran.

Izan ere, dagoeneko hasi da Garzon epailea Euskal Autonomia Erkidegoko Udalei errekerimendua aurkezten. Aramaiokoak ere jaso du epailearen eskaera, eta oraingo asteen bertan bete dute. Izan ere, urtarrilaren 20a baino lehen bidali behar dute epaileak eskatutako dokumentazioa.

Errekerimendu horren arabera, 1979tik gaur egunera arte, Herri Batasuna, Euskal Herri-

rrok eta Batasuna talde politikoek herriko Udalean egindako interbentzio, protesta, mozio eta bestelako ekimenen aktak eman behar zaizkio epaileari. Aramaion 1983an sortu zen Herri Batasuna; hortaz, ordutik gaur egunera arteko informazioa (batu ahal izan dutena, behintzat) bidali dute Aramaiotik. Zazpi-zortzi zinegotziren gain izango du eragina.

Horren gainean berba egiteko ezker abertzaleko oraingo zinegotzi Amaia Asprekin izan gara. Baina zinegotziak adierazi digu ez duela horren berririk jaso Udaltetik, eta zur eta lur geratu da horren berri eman diogunean. Iñaki Nafarrate alkateak, berriz, adierazi digu errekerimendua derrigorrez bete beharrekoa dela, eta ez duela bestelako adierazpenik egingo, "oso gai serioa delako".

AURREKONTUA

Garzonen errekerimenduaz gain, 2003ko aurrekontuak ere aztergai izango ditu udalbatzarrak. Ogasun batzordeko buru Anjel Diaz de Ceriok esan digunez, oro har, iazkoa baino txikiagoa izango da udal aurrekontua, bereziki, Hirigintza Sailean. Horrez gain, Euskara eta Zerbitzu sailak ia berdin geratuko dira eta Kultura Sailean aurrekontua apur bat igoko da.



ARTXIBOA

Joan den barikuan jaso zuten Aramaioko Udalean Garzonen errekerimendua.

Gaur, barikua, jasoko du Bittor Mendialduak Landazuri saria

Gaur, barikua, banatuko dituzte 2001eko Landazuri sariak. 19:30ean hasiko da ekitaldia, Musikaren Etxea izeneko auditorioan, Gasteizen. Horrek esan gura du Bittor Mendialdua Aramaioko organo jotzailea ere han izango dela; izan ere, bakarka egindako lana kontuan hartuta, 2001eko sariduna hura izatea erabaki zuen Landazuri elkarteak. Taldekako sarien barruan, berriz, Arabako Elkarte Belenistikoa sarituko dute.

Jesus Maria Estarronak eta Maria Teresa Murgak aurkeztuko dute ekitaldia. Gero, kontzertua izango da, eta luncha ere emango dute hara doazenendako.

LANDAZURI SARIAK

Kulturaz eta arteaz arduratzen da Landazuri elkarteak. 1992an sortu zituen izen bereko sariak, eta harrezkero urtero-urtero eman ditu. Gure ohitura eta gure ondare musikala zabaltzeko egindako etengabeko eta irabazi asmo bako

lanagatik ematen ditu sari horiek Landazuri elkarteak.

Aurtengo sariduneri Armando Llanos izeneko eskultoreak diseinatutako lan bana emango diete sari gisa.

BITTOR MENDIALDUA

Azken 50 urteotan organo jotzaile lanetan ibili da Bittor Mendialdua Aramaion, kasu askotan ia, musu-truk. Eta horregatik ere omenaldia egin zioten herrian.



Aramaion ere harrera egin zioten

Domekan, harrera egin zioten Luis Mari Azkargorta *Kanto* preso politiko ohiari. Arexolan, *Kanto*-ren jaiotetxean, auto ilara egin zuten lehenengo, eta gero, Aramaioko Herriko Plazan batu ziren bai Azkargorta baita haren lagun eta senitartekoak ere. Horrela, eta herriko txistulariek lagunduta, besteak beste, aureskua eskaini zioten aramaioarrari. Gero, Arrasatera jaitsi ziren, eta preso zegoeneko argazkia erretiratu zuen Luis Mari Azkargortak berak. Horren ostean, Bergarara joan ziren; gaur egun, han bizi da, eta han ere harrera egin zioten.



Bakarka egindako lanagatik emango diote saria Bittor Mendialduari.

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIK

Osasun etxea (txandak)	945 44 53 40
Botika	945 44 50 03
Udaletxea	945 44 50 16
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martín Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal kiroldegia	945 44 53 35
Postetxea	945 44 50 83
Zulako Eskualdea	945 43 01 67
Suhiltzaileak (Zubillaga)	943 78 28 00

AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
10:00*	10:15	
11:00	11:15	
12:00*	12:15*	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30*	18:45	
20:30	20:45	21:25
21:00*	21:15	

GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
08:15	09:00	09:15
	10:15*	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:55	14:10
16:20	17:05	17:20
	17:35	17:50
	18:45*	19:00
19:30	20:00	20:15

OHARRA: izartxoak duten orduetan eskaeraren arabera zerbitzua eskaintzen dute. Auzoetako bizilagunei zuzendutakoa da, eta autobusa erabili gura badute, bezperan deitu beharko dute honako zenbaki honetara: 629 54 59 23

OHARRAK

KONTZERTUA ANBOTON

Urban Fusion taldeak kontzertua emango du gaur, barikua, Anboto tabernan, 22:00etan. Mota askotako musika egiten du Urban Fusion taldeak, baina, batez ere, jazz erritmoak dira nagusi. Bost kidek osatzen dute taldea: hiru gasteiztarak dira, bat donostiarra eta bestea kubatarra.

ARETO FUTBOLA

Emaitza onak ekarri zituzten etxera joan den asteburuan Bañera elkarte-ko areto futboleko taldeek. Hala, kadete mailako mutilek, adibidez, 0-7 irabazi zioten El Pilar Marianistas taldeari; gazteek, berriz, 5-4 irabazi zieten Jesus Obrero taldekoiei. Neskek, bestalde, CD Aurrera taldearen kontra jokatu zuten, baina, jokatzen zebiltzala, itoginak sortu ziren Judimendin, eta partidua bertan behera utzi behar izan zuten, hurrengo baterako.

ZINEMA

Oraingo domekan, *El rey de la granja* izeneko filma emango dute, kultura etxean, 17:00etan.

KIROLA

Aramaioko pilotari gaztetxoak Gasteizen izan ziren

Joan den domekan, urtarrilaren 12an, Aramaioko Barea Pilota Elkarteko pilotari gazteak Gasteizen izan ziren. Zaramaga auzoko txapelketan hartu zuten parte aramaiotarrek. Hain zuzen ere, Aramaioko hiru bikotek jokatu zuten Zaramagako txapelketan, eta bikoteetako bik debuta egin zuten, praka zuriak jantzita, dotore-dotore. Hala, eta nahiz eta partidua ondo jokatu, urduri samar zeuden pilotari gazteak, eta galdu egin zituzten estraine-ko bi partidua: Ander Aspek eta Ander Lópezek osatutako bikoteak 16-12 galdu zuen eta Ekainek eta Mikelek osatutakoak, berriz, 16-11.

Bestalde, hirugarren bikotea, Xabik eta Igorrek osatutakoa, finago ibili zen eta 18-17 irabazi zuen. Hori bai, partidua osoan atzetik ibili ziren Aramaioko pilotariak, eta, azkenean, tanto bakarraren aldearekin irabazi zuten; horrenbestez, pilotan duten esperientzia argi erakutsi zuten partiduan.



Mikel, Igor, Xabi, Ander Aspe, Ekain eta Ander López pilotariak.

BAREA PILOTA ELKARTEA

GIZARTEA

Espainiako gerran askatasun barik egoteagatik kalte-ordainak eskatzeko epea

Otsailaren 28ra arte luzatu dute 36ko gerraren ondorioz kartzeletan edo kontzentrazio-esparruetan preso egon zirenek kalte-ordainak eskatzeko epea. Kalte-ordainak preso egon zirenek eska ditzakete; eta pertsona hori hilda bada, haren alargunak edo bikotekideak. Horrekin batera, erretiro-pentsioa edo gerrako beste pensioaren bat jasotzen dutenek ere eskatu ahal izango dituzte; ez, ordea, 1991n arrazoi beragatik dirulaguntzak jaso zituztenek. Eta 1991n dirulaguntza eskatu arren ukatu egin zietenek orain eskatu ahal dituzte kalte-ordainak.

Azaroaren 11n abiatu zuen ekimen hori Eusko Jaurlaritzak, eta zenbait baldintza zehaztu zituen dirulaguntzak eskatzeko, hala nola: interesatuek azaroaren 29an 65 urte edo gehiago izan behar zituzten eta askatasun barik sei hilabete baino gehiago pasatu behar izan zituzten, besteak beste.

BOTEPRONTOAN/ Beni Peciña · Iturrieta sagardotegikoa

“Aurtengo sagardoak graduazio txikiagoa izango du, samurragoa izango da, horiagoa eta zapore goxokoa”

Eguztenean, hilaren 15ean, txotx egin zuten Aramaioko Iturrieta sagardotegian. Betiko moduan, giro ezin hobean estreinatu dute aurtengo sagardoa, herriko trikitilariak, txalapartariak, bertsolariak eta, jakina, aramaiotar ugari lagunduta. Horrez gain, Bat Bi eta Hiru eta Rufian taldeak ere han izan ziren, giroa berotzen. Gu Peciñatar anaietako batekin izan gara aurtengo sagardoaren gainean berbetan; honako hauxe kontatu digu Benik:

Zelakoa da aurtengo sagardoa?

Nik hasieran usten nuen pattal samarra izango zela, aurtun, hemengo sagarrek azukre kantitate txikia izan dute-eta. Hori bai, sagar ugari izan ditugu, eta haien gainerako ezaugarriak (taninoak, azido malikoa...) egokiak izan dira. Hortaz, aurtengo sagardoak graduazio txikiagoa izango du (apurtxo bat), samurragoa izango da, baita horiagoa ere (ia berdea), eta oso zapore goxoa izango du. Lasai eta gustura edateko sagardoa izango da. **Zenbat litro egin dituzue?** Gutxi egiten ditugu; autokontsumorako egiten dugu, sagardotegirako. Eta sagardo apurtxo bat botiletan sartzen dugu, baina hemen saltzeko. Batez beste,



“Inguruko baserritarrek egiten dugu lan, Aramaiotik hasi eta Bergararainokoekin”

10.000 litro egin ditugu. **Hemengo sagarrak erabili dituzela esan didazu; Aramaiokoak bakarrik?**

Aramaiokoak ere badira. Guk, adibidez, 1.000 sagar baino gehiago ditugu landatuta, baina gazteak dira eta oso sagar gutxi ematen dute. Hortaz, inguruko baserritarrek ere egiten dugu lan, Aramaiotik hasi eta Bergararainoko zenbait baserritarrek, hain zuzen ere.

Zenbat sagar behar dituzue, bada?

Asko. Kontuan hartu behar da guk oso sistema errudimentarioa dugula (prentsa, adibidez, eskuz erabiltzekoa da); horren ondorioz, erabiltzen ditugun 100 sagarretatik 60-65 aprobetxatzen ditugu. Hortaz, 18.000 kilo inguru behar izaten ditugu.

Lau urte daramatzazue sagardogintzan; egin duzue aldake-

taren bat urteotan?

Bai. Lehenengo urtean, sagardo gutxi egin genuen, eta edaria, batez ere, kanpotik (Gipuzkoatik) ekarri genuen. Handik aurrera, geroago eta kantitate handiagoa egiten hasi ginen, eta edariaren erdia ekartzen genuen kanpotik. Zergatik? Hasten ari ginelako eta ezin genuelako arriskatu, produkzio eskas batek denboraldi osoa galaraz diezaguke-eta. Hala, horren ondoren, guk egin dugu sagardoa, ibarreko sagarrek. Hori bai, prentsa berria erosi dugu. Edozellan ere, lehen esan bezala, guk egokitu dugu. Eta, esate baterako, sagarrak guk garbitu eta aukeratzen ditugu, banan-banan.

Edozellan ere, aurrera begira sagardo kantitate handiagoa egin gura dugu, betiere, produkzio baxuaren barruan, baina orain baino gehiago. Hori bai, hemengo sagarrek lanean jarraitu gura dugu; hortaz, horrek ere ezartzen digu muga. **Zuk zeuk zer edo zer gehitzeko baduzu?**

Espero dut aurtengo denboraldia ona izatea eta gure sagardoa jendeak gustuko izatea. Eta azpimarratu gurako nuke giro ederra sortzen dela paraje ezin hobe honen baitan.

“Sistema errudimentarioa dugu: sagarrak banan-banan aukeratzen ditugu”

ERRETRATUZAHARRA

Gipuzkoako
txapeldunak
Urbian

Hara, 1943. urtean futbolean Gipuzkoako txapela eskuratu zuen taldea! Mondra taldekoak dira, jakina; Club Deportivo Mondragon taldekoak, hain zuzen ere.

Kontatu digutenez, futbol denboraldia bukatu ostean, Urbiara igotzen ziren taldeko jokalariek eta bestelako kide guztiak. Urteroko ohitura zuten; eguna pasatzera joaten ziren hara gora. Eta hala egin zuten argazkia atera zuten egunean ere: 1943. urteko uztailaren 25ean. Ikusten dugunez, gainera, elegante asko jantzi ziren kirolariak mendira igotzeko; gehienak, txaketa eta guzti.

Honako hauek agertzen dira eskumako argazkian, goiko ilaran, ezkerretik eskumara: Luis Arana Cano, Jose Mari Aranburu, Aranbarri Baranda, Monti, Heriberto Mendizabal, Benito Etxebarria, Castor Uribe, Pereira, Ramon Heriz (txapela duena) eta Fertxu Aranburu.

Erdiko ilaran, ezkerretik eskumara, honakoak daude: Joxe Errasti,



Alvaro Oregi, On Jose Maria Arizmendiarrieta (Arrasateko parrokoa, besteak beste), Juanito Madinabeitia Moxolo, Jesus Vitoria, Urreta, Satur Vitoria eta Imanol Arizaga Txanbolin (atezaina zen).

Eta, makurtuta, honako hauek

daude, ezkerretik eskumara: Pedro Sologaistoa Laso (Arrasaten oso argazkilari ezaguna), Imanol Zeziaga Divino (futbol jokalaririk ezaguna izan zen), Patri Egidazu (Realean ere jokatu zuten), Jose Aiala (Mondrako presidentea zen garai hartan), Manolo Amozar-


rain, Santiago Etxebarria Zurdo eta Eugenio Baltzategi Erregetxo.

Argazkia: Aranburu familia
Informazioa: Aranburu familia
Urtea: 1943. urtea

NOLAALDATUDIRENGAUZAK

Zurgin
Kantoiak, hiru
kaleren lotune

Urteek ez ei dute barkatzen. Denborak aurrera egiten duen neurrian, gauza guztiak aldatu egiten dira, guztiak. Hala ere, gauza batzuk urte gutxian dezente aldatzen dira, eta beste batzuek badirudi denborari aurre egiten diotela, edo horretan ahalegintzen direla. Zurgin Kantoiak horren adibide da. Kale txikiak hobeto egiten diete aurre erlojuen orratzei.



1972 Goiko argazkia Juan Miguel Epeldek atera zuen. Kantoiak gutxi aldatu da, baina egun, komertzio gehiago dago Zurgin Kantoiak.



2003 Olarte, Ferrerías eta Erdiko kaleak batzen ditu Zurgin Kantoiak. Alde zaharreko kantoi horietan jende asko ibiltzen da gora eta behera.



Gambrinus
garagardotegia

- Menua:
- bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak
- Pintxoak eta kazuelatxoak

Otalora Lizentziaduna, 40-42
Tel.: 943 79 53 32

gorka ileapaindegia


ordutegia:

asteartetik ostiralera 09.30 - 20.00

larunbatetan 08.00 - 14.00

ferrerías, 35
arrasate

943 77 13 78



Txitxinpe

Berezitasunak

Kazuelatxoak

Otarteko hotz eta beroak

Arrasate pasealekua, 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

HIES
BERRI

Tel.: 943 79 26 99



ASTEBETE...

Eta zuk, zer duzu esateko?

Goitb
Goiena Telebista

**Ikusiko
duzu!**

Egubakoitzero,
20:30ean eta 22:30ean

Aurkezlea:
Goiatz Arana

Osasun Gida

AKUPUNTURA

- INTEGU (Masajea, Osteopatia) Uarkape, 18 behea. ezk. ☎ 943 77 13 34

DERMATOLOGIA

- CONCEPCION TAMAYO Dk. Maalako Errabala, 23-2.A ☎ 943 77 05 57

ENTZUMEN ZENTRUA

- GAES Otorora lizentziaduna 18 ☎ 943 71 27 93

ERREUMATOLOGIA

- GOROSARRI - TROJAOLA Dreak. Zaldibar, 1-1 ☎ 943 77 00 40

FISIOTERAPIA ETA GAIBERRITZEA-ERREHABILITAZIOA

- ANDONI ETA MARIA BASTERRETXE Errehabilitazio Zentrua Garibai Etorb. 6B ☎ 943 77 03 96
- FRANCISCO JAVIER LOPEZ DE MUNAIN. (Medikua) Zaldibar, 4-1 ☎ 943 77 14 72
- MARIA GARDOKI LEGORBURU. ☎ 670 52 19 34

KIROPRAKTIKA ZENTRUA

- ANDREA LARRAÑAGA Erdiko kalea, 22-3. eskuma ☎ 943 79 92 83

LOGOPEDIA

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko kalea, 37 ☎ 943 79 79 46
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 ☎ 943 79 48 77

MASAJEAK

- JOSE LUIS ABUIN (Kiromasajea, akupuntura, naturopatia) San Josepe, 10 Behea, D (Kiroldegian ere bai) ... ☎ 943 77 01 33

ODONTOLOGIA

- ARRASATE HORTZ KLINIKA Iturriotz, 17-1 Ezk ☎ 943 79 72 23
- ARREGI HORTZ KLINIKA Zerkaosteta, 19 behea ☎ 943 79 71 90
- GIPIZKOAKO ODONTOLOGIA ESPEZIALITATEEN ZENTRUA. Iturriotz, 7 Bis ☎ 943 79 73 88
- IRIARTE IRURETA, ANE MAITE Iturriotz, 7- 1 ☎ 943 79 69 45
- LOPEZ DE GOIKOETXEA (Goiz eta arratsalde) Alfonso X. Jakintsua, 5 ☎ 943 79 17 74
- LORENZO MARTIN, RAFAEL Zarugalde, 3- 1.-B ☎ 943 77 12 63

OPTIKA

- ARRASATE OPTIKA (Optika, Optometria eta kontaktologia) Kontzezino, 6 ☎ 943 79 25 98
- MULTIOPTICAS LARRAÑAGA (Optika, Optometria eta kontaktologia) J. Carlos Guerra 1 ☎ 943 79 29 95

ORTOPEDIA

- ORTO LAGUN ORTOPEDIA Kontzezino, 2 ☎ 943 79 89 34

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

- UDALAITZ MEDIKU-ZENTRUA (Analisi klinikoak, R-X) Ferrerías, 56-Behea ☎ 943 79 44 22

OSTEOPATIA

- NEREA BENGUA (Bizkarreko minak eta lunbalgiak) Azoka kalea, 4 ☎ 659 58 66 89

PODOLOGIA

- ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA Erdiko kalea 54, behea eskuma ☎ 943 79 97 46

PSIKOLOGIA

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko kalea, 37 ☎ 943 79 79 46
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 ☎ 943 79 48 77
- TXOMIN NUÑEZ Olarte, 10 ☎ 943 79 88 16

UROLOGIA

- LLUCH, ALBERTO (Centro Médico Udalaiz) Ferrerías, 56 ☎ 943 79 44 22